

Txostenaren aldia
2022ko uztailetik 2023ko ekainera

Urteko txostena, hirugarrena, balorazio
batzordearena, euskal autonomia
erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean
izandako motibazio politikoko
indarkeria-egoeran
giza eskubideen
urraketak jasan
dituzten biktimei
aitortza eta
erreparazioa
ematekoa





Giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei
errekonozimendua eta erreparazioa emateko Balorazio Batzordea
2022ko uztailetik 2023ko ekainera

Bat etorrita uztailaren 28ko 12/2016 Legearen 18.5 artikularekin eta otsailaren 25eko 20/2020 Dekretuaren 12. artikularekin (dekretu horren bidez, [motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketan biktimen errekonozimendu eta erreparaziorako](#) prozedura garatzen da), Balorazio Batzordeak (aurrerantzean, Batzordea esango diogu) *“urtero egin beharko du txosten bat, non azaldu beharko baititu egindako lanaren alderdi hauek, gutxienez:*

- a) Sarrera bat, txostena dagokion garai eta moduan kokatzeko.*
- b) Egindako zereginen kontu-ematea, non, uztailaren 28ko 12/2016 Legearen 18.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek gutxienez jaso beharko baitira: lanaren emaitzak, ikerketen emaitzak, bildutako datuen ezaugarriak, aurkeztutako eskabideak, eta gertatutakoa zehatz-mehatz eta benetan ezagutzen laguntzen duen bestelako datu oro.*
- c) Hobetu beharreko arloei edo garatu beharreko ekimenei buruzko gomendioak uztailaren 28ko 2/2016 Legea ezartzean, zehazki, eta giza eskubideen urraketan biktimak aitortzeko politiketan, orokorrean.*

Dokumentu honen xedea, beraz, *Batzordearen hirugarren urteko txostena* denez, konpromiso horri erantzutea da.

Legean aurreikusten den eskemari jarraikiz, txostenak honako atal hauek dauzka:

I. Sarrera

II. Egindako zereginen kontu-ematea

1. Balorazio Batzordea
2. Egindako lanak.
3. Aztertutako kasuen izaera eta ezaugarriak. Adibide batzuk.
4. Auzitegi-medikuntzaren eta -psikologiaren ikuspegia.

III. Gomendioak

I. Sarrera

2016ko uztailaren 28an, honako lege hau onetsi zen, eta 2016ko abuztuaren 10eko EHAA argitaratu: 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

2021eko abenduaren 13an amaitu zen eskaerak aurkezteko epea, eta honako eskaera hauek jaso genituen:

- Lehenengo aldi berezia:
Jasotako eskaeren kopurua: 89. Ebatzitako espedienteak: 77. Ebazteko daudenak: 12.
- Bigarren aldi berezia:
Jasotako eskaeren kopurua: 170. Ebatzitako espedienteak: 121. Ebazteko daudenak: 49.
- Ohiko aldia.
Jasotako eskaeren kopurua: 1.027 (horietatik 64 epez kanpo). Ebatzitako espedienteak: 548. Ebazteko daudenak: 479.

Batzordeak, lanari ekin zionetik igaro den hirugarren urte honetan, legearen xedeari independentziaz eta zorroztasunez heltzeko arauari jarraitu dio, eta *pro homine* interpretatu du uztailaren 28ko 12/2016 Legea, giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen estandarrek eraginkorrago integratu eta gauzatze aldera. Jarrera horrekin, eta bazter utzirik legearen xedearekin bat ez egiteagatik *a limine* onartu behar ez ziren espedienteak, orain arte eta guztira, 143 espedientetan aitortu da biktimaren kondizioa (143 espediente horietatik, txosten honek hartzen duen aldian izapidetu dira 64), eta 542 espediente daude aztertzeko zain. Aurten egindako lanaren datuak banakatzen hasi aurretik, halere, beharrezko ikusi dugu gure ustean lehentasunezkoa eta premiazkoa den gogoeta bat egitea.

12/2016 Legearen 15.2 artikulua adierazten duenez, “organo eskudunak ebatzi beharko du planteatutako eskaera, eta ebazpena jakinarazi beharko dio interesdunari gehienez ere hogeita lau hilabeteko epean, epe hori luzatzea arrazoitzen duten egoera berezietan izan ezik. Luzapena indarreko legediak ezartzen dituen mugetara egokitu da beti”. Ebazpenak emateko erritmoa, baina, ageriki motela da: kasu batzuetan, epeak beste bi urtez luzatuko direla jakinarazten hasi gara. Hori gutxi balitz, 1978tik aurrera urratutako giza eskubideei buruzko espediente gero eta gehiago sartzen dira Batzorde honetara, bideratu eta ebatz ditzagun, eta horrek, argi eta garbi, agerian jartzen du zailtasunak eta lan-bolumena are gehiago eta nabarmen areagotuko direla.

Batzorde gisa, onartezina iruditzen zaigu gure lana, orain artean izandako erritmoan oinarritutako kalkulua eginez, gutxienez beste 6 edo 8 urtez luzatu behar izateko aukera egotea, nahiz eta oso erreala izan, 2030eraino eramango gintuzke-eta horrek. Hainbat gertakarik kalte handia eragin diote lege-mekanismoaren funtzionamendu normalari: lehenik, Konstituzio Auzitegian edo Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenean aurkaratu zen legea; bigarrenik, COVIDak eragindako osasun-larrialdia etorri zen, eta, hirugarrenik, Batzorde honi lan egitea oztopatzeko kanpaina bat egin zen, legearen erregulazio-xedetik oso urrun zeuden eskaerekin. Gainera, legegari trabak jartzeko jarduerak bere horretan jarraitzen du, eta horrek energia ago-

rrarazten digu, onartzen ez diren eskaerak eta ez-onartze horiei jarritako errekursoak izapidetu behar baititugu.

Oztopo horiek, halere, ez dira egin dugun aurreikuspenaren arrazoi bakarra. Aurreko txostenetan esan bezala, arau-esparrua ondo aldatzeak mekanismoa bera eta mekanismoaren eraginkortasuna hobetu ahalko lituzke. Erreforma hori iritsi bitartean, ordea, baliabide gehiago emateak lan-erritmoa azkartzen lagunduko luke, biktimen onerako eta jorratzen ditugun giza eskubideen urraketa larriek Batzorde honi planteatzen dioten erronka bete dezagun.

II. Egindako zereginen kontu-ematea

1. Balorazio Batzordea:

Batzordea, formalki, 2018ko uztailaren 10ean eratu zen, eta, 2022ko irailetik 2023ko ekainera bitartean, honako aldaketa hauek egin dira osieran:

- Amaia Bóveda auzitegi-psikologoaren ordez, Ana Imaz Llano jarri da, zeinak aurretik betetzen baitzuen ordezko psikologoaren lanpostua Balorazio Batzordean; ordezko psikologoaren lanpostua, berriz, Olga de Frutos García hartu du, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko auzitegi-psikologoak.
- José Luis Aurtenetxe Goirienak Batzordea utzi zuen, eta Eusko Legebiltzarrak Peru Bazako Atutxa jarri du haren ordez, duela gutxi.

Hortaz, honako hauek osatzen dute Balorazio Batzordea:

Titularra: Monika Hernando Porres, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendaria.

Ordezkoa: Miren Aintzane Ezenarro Egurbide, Gogora - Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria.

Titularra: Jon Mirena Landa Gorostiza, Zigor Zuzenbidean espezializatutako legelaria.

Ordezkoa: Enara Garro Carrera, Zigor Zuzenbidean espezializatutako legelaria.

Titularra: Sabino Ormazabal Elola, biktimen arloan aditua.

Ordezkoa: Bertha Gaztelumendi Caballero, biktimen arloan aditua.

Titularra: Luis Sala González, historialaria.

Ordezkoa: Jon Penche González, historialaria.

Titularra: Juana María Balmaseda Ripero, Legearen erregulazio-xedean aditua. Batzordeko presidente izendatu zuten, Legearen 17.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Ordezkoa: Felipe Gómez Isa, Legearen erregulazio-xedean aditua.

Titularra: Peru Bazako Atutxa, Legearen erregulazio-xedean aditua.

Ordezkoa: Josu Oskoz Barbero, Legearen erregulazio-xedean aditua.

Titularra: Francisco Etxeberria Gabilondo, Legearen erregulazio-xedean aditua.

Ordezkoa: Miguel Ángel Navarro Lashayas, Legearen erregulazio-xedean aditua.

Titularra: Benito Morentin Campillo, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegi-medikua.

Ordezkoa: Maite Izaguirre Loroño, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegi-medikua.

Titularra: Víctor Verano Zapatel, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegi-medikua.

Ordezkoa: Julia Lamas Ruiz, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegi-medikua.

Titularra: Ana Imaz Llano, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegi-psikologoa.

Ordezkoa: Olga de Frutos García, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegi-psikologoa.

Idazkaritza teknikoa: María Ángeles Sánchez Amado, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzako teknikaria.

2. Egindako zereginak:

	Deialdiak	Osoko bilkurak	Testigantzak jasotzeko bilerak	Egin diren elkarrizketak	Ebatzitako espedienteen kopurua
2022ko uztaila	1		1		
2022ko iraila	4	2	2	10	9
2022ko urria	4	2	2	10	7
2022ko azaroa	3	2	1	5	4
2022ko abendua	2	1	1	5	8
2023ko urtarrila	2	1	1	5	7
2023ko otsaila	3	2	1	5	47
2023ko martxoa	5	2	3	10	37
2023ko apirila	2	1	1	5	6
2023ko maiatza	3	2	1	5	1
2023ko ekaina	3	2	1	5	4
Guztira	32	17	15	65	130

2022ko uztailetik 2023ko ekainera bitartean, Batzordeari 32 aldiz egin zaio dei. 17 osoko bilkura egin dira, egokitzen ziren deialdiekin eta gai-zerrendekin. Bilera horien guztien akta jaso da.

Osoko bilkura horiez gainera, bat etorrita Legearen 14.2.a) artikuluan eta Dekretuaren 6.c) artikuluan ezarritakoarekin, Batzordeak 15 bilera monografiko egin ditu biktimen testigantzak biltzeko; guztira, 65 ikus-entzunezko erregistratu dira, 65 espedienteri dagozkienak.

Biktimen testigantzen ikus-entzunezko erregistroak egiteko, Aranzadi Zientzia Elkartearen zerbitzuak jaso ditu Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak, elkarte horrek eskarmentu ziurtatua baitauka antzeko lanetan (grabaketak frankismoaren biktimekin eta ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren esparruan aitortutako biktimekin).

2020ko ekainetik 2021eko ekainera, 35 espedientetan eman genituen aitortza-ebazpenak. Gero, 2021eko ekainetik 2022ko ekainera, 573 espediente ebatzi genituen, eta, horietatik:

- 46 aitortza-ebazpen eman genituen.
- 2 eskaeratan, interesdunak atzera egin zuen.
- 2 eskaera ezetsi genituen.
- 523 ebazpenetan, ez genuen eskaera onartu. Onartu ez genituen eskaeretatik 473 Espainiako segurtasun-kidego eta -indarretako kideek planteatu zituzten, eta 50

ETArengandik edo haren inguruneko elementuengandik motibazio politikoko indarkeria jasan zuten pertsonak.

Esku artean dugun aldian, 2022ko uztailetik 2023ko ekainera, 131 espediente ebatzi ditugu, eta, horietatik:

- 66 aitortza-ebazpen eman ditugu.
- 64 ebazpenetan, ez dugu eskaera onartu edo ezetsi egin dugu, legez ezarritako epetik kanpo aurkezteagatik.
- 1ek atzera egin du.

Aitortutako 66 biktimetatik 49k tratu txarrak edo tortura jasan zituzten polizia-etxean; 7 biktima poliziak edo eskuin muturreko taldeek tiroz hildakoak dira; beste bat eskuin muturreko talde batek hil zuen, kolpeka, bortxatu ondoren; 4 pertsonak bala-zauriak izan zituzten, eta beste bat gomazko pilota batek zauritu zuen; beste 3 pertsona larri zauritu ziren, ostikoen edo bestelako kolpeen ondorioz, eta pertsona bat hil egin zuten, bahitu, bortxaz desagerrarazi eta torturatu ondoren.

Aldi honetan, guztira, 1.614.007,02 euroko kalte-ordaina jaso dute biktimek; zenbaterako horretatik 183.328,64 euro torturen biktimei eman zaizkie; 1.080.000 euro hildakoetatik 8ri (kasuetako batean, Memoria Historikoari buruzko Legeak aurretik eman zion kalte-ordaina biktimaren familiari), eta gainerako biktimek (hots, balek, ke-potoek, gomazko pilotek edo bestelako kolpeek zauritutakoek) 350.678,38 euroko kalte-ordaina jaso dute.

Ebazpen horien kontra, gora jotzeko hiru errekurso jarri dira, administrazio-bidean ebatzi direnak, eta, bestetik, administrazioarekiko 21 auzi-errekurtso jaso dira, Euskal Autonomia Erkidegoan destinatuta egonik ETArengandik edo haren inguruneko elementuengandik motibazio politikoko indarkeria jasan zuten Espainiako segurtasun-kidego eta -indarretako kideek egindako eskaerekin lotuta jarri ziren gora jotzeko errekursoak ezesteko ebazpenen kontra. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenak oraindik ez ditu ebatzi administrazioarekiko 21 auzi-errekurtsoak.

Egindako instrukzio-lana

Deletuaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, Batzorde honek informazioa eskatu die, Idazkaritza Teknikoaren bidez, hainbat erakunde judizial, polizial, administratibo eta/edo sanitarioi, alegatutako gertakariak egiaztatze eta osatze aldera.

IZAPIDEETAN ARITU DIREN ERAKUNDEAK	Egindako izapideen kopurua
Ospitaleak	4
Ferroleko artxibategi militarra	5
Madrilgo artxibategi militarra	1
Madrilgo Probintzia Auzitegia	1
Gipuzkoako Probintzia Auzitegia	2
Arabako Probintzia Auzitegia	3
Gasteizko Instrukzioko 4. Epaitegia	1
Gipuzkoako Instrukzioko 2. Epaitegia	1

IZAPIDEETAN ARITU DIREN ERAKUNDEAK	Egindako izapideen kopurua
Legazpiko Bake Epaitegia	1
Madrilgo Probintzia Auzitegiaren artxibategia	1
Donostiako Udala	1
Martuteneko espetxea	1
IVAC / KREI	50
Donostiako Koldo Mitxelena kultur zentroko heme-roteka historikoa	8
Erregistro Zibila	1
Ehorztetxea	1
Portugaleteko hilerria	2
Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua	1
FPIren artxibategian kontsulta. Mohedano funtsa	1
Madrilgo Instrukzioko 2. Epaitegiko idazkari judizialarekin bilera	1
Auzitegi Medikuntzako Madrilgo Institutua	6
GUZTIRA	88

Lau aldiz, historia klinikoak eskatu dizkiegu Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleei (Gasteizko Txagorritxu ospitaleari eta Donostiako Donostia unibertsitate-ospitaleari). Halaber, sei aldiz, jurisdikzio militarri dagozkion espedienteak eskatu dizkiegu Madrilgo 4. artxibategi militarri eta Ferroleko artxibategi militarri. Zortzi aldiz, Donostiako Mitxelena kultur zentroko hemeroteca historikora jo dugu.

Bestetik, espediente judizialak eskatu ditugu Arabako Probintzia Auzitegian (hiru aldiz), Gipuzkoakoan (bi aldiz) eta Madrilgo Probintzia Auzitegian (behin), baita Madrilgo Instrukzioko 12. Epaitegian ere. Azken horretan, hara joan behar izan genuen, eta bilera eduki Epaitegiko idazkari judizialarekin, Auzitegi Medikuntzako Madrilgo Institutuak espediente bati buruzko dokumentazioa emateko baimena lor genezan. Era berean, dokumentazio-eskaera bat egin behar izan genion Legazpiko Bake Epaitegiari, espediente bati buruzko informazioa lortzeko. Bestetik, bi aldiz, heriotza-ziurtagiriak eskatu ditugu Erregistro Zibilean.

Bestalde, gorpu bat desobiratu dugu, eta Batzordeko auzitegi-medikuen taldeak egin ditu bai autopsia, bai autopsiaren txostena. Horretarako, hainbat izapide egin behar izan ditugu gorpua desobiratu eta, gero, hobiratu duen ehorztetxearekin, Eusko Jaur-laritzarekin, hilerriarekin eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearekin, baimen guztiak lortzeko.

Kasu gehienetan, erakundeen jarrera elkarlanekoa izan da; hala ere, beti ezin izan dugu informazioa lortu, bai gertakarrietatik denbora asko igaro delako, bai egindako eskaerari emandako erantzuna argia izan ez delako. Kasu batean gutxienez, poliziak tiroz hildako senar-emazte batzuen seme-alabek Batzorde honen au-

rrean salatu zuten zailtasun handiak izan zituztela gurasoen espediente judiziala eskatzeko, eragozpenak jarri zizkietelako eta ez zitelako eskatutako dokumentazioa eman. Egiatzatu dugunez, jarrera bereziki oztopatzailea izan dute artxibategi militarrek, orain artean egindako eskaeren artetik batean bakarrik eskuratu ahal baitugu dokumentazioa. Batzordea, halaber, zailtasun handiak izaten ari da Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegiei eta auzitegiei buruzko espedienteen informazioa eskuratzeko. Kezkatuta gaudela adierazi behar dugu, dokumentazio jakin bat lortzeko orduan azkarrago eta arreta handiagoz jokatzan ez bada kalte handia eragin dakiokelako Batzorde honen lanari. Hori dela-eta, erakunde guztiei eskatu nahi diegu lagundu dezatela, denborak eskatzaile askoren kontra egiten duelako aurrera.

Halere, IVAC/KREI erakundearekin izandako lankidetzua ona nabarmendu behar dugu. Bada, erakunde horrek “*Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)*” egin zuen Eusko Jaurlaritzarako, eta, proiektuan aztertu ziren kasuetan, betiere datu pertsonalen babesa eta biktimek ohorerako eta intimitaterako duten eskubidea errespetatuta, 50 espedienteri buruzko informazioa partekatu dugu. Gainera, kasu batzuetan, saihestu egin da biktimak gertatutakoa berriro kontatzea, horrek pertsonari eragiten dion estutasuna dela-eta.

Nabarmendu egin behar dugu, halaber, interesdunak edo haren familiak espedienteen emandako dokumentazioa zabaltzen saiatu dela IVAC/KREI. Hala, bilaketa orokorrak egin ditu hemerrotekan eta webean, eta, informazioa digitalizatuta egon ez den edo webean eskuragarri egon ez den kasuetan, hainbat kudeaketa egin ditu; besteak beste, udal-aktak eskatu dizkie hainbat udalerritako artxibategiei, edo Ordena Publikoko Auzitegiak emandako epaiak eskatu dizkio Aranzadi Zientzia Elkarteari. Informazioa biltzeko lan horretan, zortzi aldiz joan behar izan dugu Donostiako Koldo Mitxelena kultur zentroko hemerrotekara.

Zenbaitetan, ezinbestekoa izan da biktimak ezagutu zituzten edo gertaerak bertatik bertara ikusi zituzten pertsonen testigantza biltzea, eta, horretarako, hainbat elkarriketa egin behar izan ditugu.

Guztira, 88 izapide osagarri egin ditugu, eta, beraz, denbora gehiago behar izan dugu espediente ugari ebazteko; are, espedienteetako batzuk instrukzio-fasean daude oraindik ere.

Gaur egun, 47 espediente daude egoera horretan, eta horietatik 12 iaiztik daude horrela.

Ohiko aldiko 20., 21., 22. eta 23. espedientei dagokienez, Balorazio Batzordeak, espedienteen ordenari jarraikiz aurretiko analisian egin ondoren, komunikabideen bidez jakin zuen Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak Donostiako Instrukzioko 2. Epaitegiari agindu ziola zenbait instrukzio-eginbide (taldeko identifikazio-saioak) egitea (734/1984 aurretiko diligentziak). Bada, xede horretarako, epaitegi horretara jo zuen Batzorde honek, formalki, kausa penal horrek irekita jarraitzen ote zuen jakiteko. Ondorioz, prozeduraren izapidea etetea eskatu zion Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzua Sailburuordearen Idazkari Nagusiari, 12/2016 Legearen 14.5 artikuluan xedatutakoarekin bat.

66 Aitortza-ebazpenei buruzko informazioa

(Pertsona bati giza eskubide bat baino gehiago urratu bazaizkio, lehenengo urraketan zuen adina eta urraketa hori non gertatu zen jaso dugu).

Sexuaren arabera:

- Emakumeak: 11
- Gizonak: 55

Gertaeren unean zuten adina:

- 0-24 urte: 45 (16 urte baino gutxiagokoak 5).
- 25-34 urte: 15
- 35-49 urte: 3
- 50 urtetik gora: 3

Gertakarien kokalekua:

- Gipuzkoa: 48
- Bizkaia: 10
- Araba: 3
- Lapurdi: 1
- Valentzia: 1
- Alacant: 1
- Madril:
 - Hildakoa: 1
 - Balaz zauritutakoa: 1
 - Tortura/tratu txar larriak: 6

Gertakarien urtea:

- 1961-1970: 9
- 1971-1975: 29
- 1976-1982: 22
- 1983-1999: 6

Eragindako kaltea:

- Heriotza: 9
 - 16 urteko gazte bat aurretik bortxatu egin zuten.
- Bala-zuloengatiko lesioak: 4
- Gomazko pilotak jotzeagatiko lesioak: 1
- Erasoengatiko lesio larriak: 3
- Tortura/tratu txar larriak: 49

- Hiru aldiz atxilotuak: 5
- Lau aldiz atxilotuak: 3
- Bost aldiz atxilotuak: 1
- Zazpi aldiz atxilotuak: 2
- Bederatzi aldiz atxilotuak: 1
- Sexu-askatasunaren aurkako erasoak: 7
- Mehatxuak aurretik/ondoren: 13

Kausatzailea:

- Guardia Zibila 17
- Polizia: 32
- Aurreko bi kidegoak (atxiloketa desberdinetan): 11
- Ertzaintza:
- Talde kontrolgabea edo parapoliziala:
 - Batallón Vasco Español (BVE): 2
 - BVE eta Triple A taldeek aldarrikatuak: 1
 - Asociación Nacional Española (ANE): 1
 - Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL): 1
 - Guerrilleros de Cristo Rey: 1

Biktimaren atxikipenaren arabera:

Alderdiak, sindikatuak eta askotariko erakundeak:

- Nuklearren kontrako komiteak: 2
- Langile Komisioak: 1
- Langile Abertzaleen Komisia (COA): 1
- Auzo Komiteak eta Ramón y Cajal Kluba: 1
- Gelako ordezkaria Ingeniaritza Tekniko Industrialeko Eskolan: 1
- Euskal Herrian Euskaraz (EHE): 1
- Eusko Gaztedi (EGI): 3
- Iesa-Contadores Fabrikako Taldea: 1
- HOAC-JOC-Herri Gaztedi: 1
- Ikasle Abertzale Sozialisten Erakundea (IASE): 1
- KAS-HASI-Amnistiaren Aldeko Batzordeak: 1
- Komunistak-EMK-CCOO/CECO: 2
- Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB): 1
- Langile Komiteak: 1

- Liga Komunista (LC): 1
- Langileen Antolakunde Iraultzailea (ORT): 2
- Alderdi Komunista (PCE-EPK): 1
- Espainiako Alderdi Komunista Internazionala (PCI): 1

ETArekin lotutakoak

- Lehenengo ETA: 1
- “Los Cabras” taldea, ETAtik eratorria: 1
- ETA Berri-Espainiako Mugimendu Komunista-Komisioak: 1
- ETA V. asanblada: 5
- ETA VI. Asanblada eta Langile Komisioak: 1
- ETApm: 2
- ETAm: 1
- Biarritzen errefuxiatutako ETAko militantea: 1
- ETAko kideen senideak: 3
- ETari laguntzea leporatu zietenak: 9

Beste batzuk:

- Afiliazio politiko ezagunik gabeak edo loturarik gabeak: 12
- Langileen manifestazioetara joandakoak: 2
- Aberri Egun batera joandakoa: 1
- Lantokian ikurrina bat gordetzeagatik: 1
- Euskal kulturara lotutakoak: 2

3. Aztertutako kasuen izaera eta ezaugarriak eta ikuspegi biktimologikoa:

Batzordeak aztertu dituen kasuen konstelazioak oso anitzak eta larriak dira. Iazko txostenean adierazi moduan, errepikatu egin behar dugu batzordekideok, gaian adituak bagara ere, asko-askotan larritzen garela, bai kasuak oso mingarriak direlako, bai, eta are gehiago, biktimek eta haien senideek sufritzen jarraitzen dutelako.

Horrek argi ikusarazi beharko liguke hizpide dugun gaia ez dela iraganeko kontua. Legean giza eskubideak urratu zizkietelako aitortzen diren biktimak gure artean bizi diren gizon-emakumeak dira. Biktima batzuk hilda daude, baina haien senideen eta hurbilekoen minak oso bizirik jarraitzen du, eta artatu beharra dago.

Batzordeak izaera honetako kasuak aztertu eta ebatzi ditu:

- 3.1. Bahitu, bortxaz desagerrarazi eta torturatu ondoren hildakoak.
- 3.2. Bala-tiroengatik hildakoak.
- 3.3. Talde parapolizialen atentatuetan hildakoak.
- 3.4. Balaz zauritutakoak.
- 3.5. Gomazko pilotek jotzeagatik zauritutakoak.
- 3.6. Jipoiengatik eta eraso larriengatik zauritutakoak.
- 3.7. Tortura eta tratu txar larriak pairatutakoak.
- 3.8. Biktimei sufrimendua eragiten dieten bestelako ekintzak eta omisioak.
- 3.9. Biktimek eskatzen dutena.

Jarraian, kasu batzuk azalduko ditugu, aitortu diren giza eskubideen urraketak, urraketa horien dimentsio biktimologikoa eta Batzordeak espedienteak bideratzeko, argudiatzeko eta ebazteko modua ulertzen lagunduko digutelako. Hori guztia, kontu emateko asmoz, otsailaren 25eko 20/2020 Dekretuaren 12.b) artikulua eskatu bezala.

3.1. Bahitu, bortxaz desagerrarazi eta torturatu ondoren hildakoak

- Batzordeak hunkituta hartu zien lekukotza José Ignacio Joxi Zabalaren amari eta anai-arrebei, GALEk 1983an bahitu, bortxaz desagerrarazi, torturatu eta hil baitzuen hura, gertaera beldurgarri batean. Jendar-tean ezaguna denez, kasu honetan bazter utzi dugu txostenean oro har erabili dugun irizpidea, biktimaren nortasuna ez aipatzekoa, alegia.

Halaber, argitu nahi dugu Batzordeak orain arte ez duela irizpenik eman Josean Lasaren kasuari buruz (zoritarrez, Joxi Zabalaren kasura lotuta dago, biak ala biak –Lasa eta Zabala– izan zirelako egitate kriminal berberen biktima), senideek ez zutelako aitortza-eskaera egin Legean ezarritako epearen barruan (2021eko abenduan amaitu zen). Halere, badakigu epea igaro ondoren egin dutela eskaera, beste kasu batzuetan gertatutakoaren ildoan: eskatzaileek, askotariko arrazoiak tarteko, legezko epea igaro ondoren erabaki dute urratsa ematea. Batzordea jakitun da eskatzaileen denborak legezko esparruetatik harago ondu daitezkeela; beraz, epeak berriro ireki beharko lirake (aurrerago iradokiko dugun bezala), biktimen aldeko jarrera erakutsiz arta ditzagun, erabat, pertsona horiek. Auzitegi Nazionalaren epaiak frogatutzat jo zuenez, GALEko kideek, 1983ko urriaren 15ean, José Antonio Lasa eta Joxi Zabala bahitu zituzten Baionan; lehenik, Guardia Zibilarren Intxaurrondoko kuartelera eraman zituzten,

eta, gero La Cumbre jauregira (Donostiako Aldapeta muinoa). Han, galdeketa egin zieten, eta, zenbait zantzuren arabera, baita torturatu ere. Ez dakigu zenbat egun igaro zituzten La Cumbre jauregian, baina, gero, Busot-era (Alacant) eraman zituzten biak, errepidez, 700 kilometrora baino gehiagora, eta burura tiro eginez hil zituzten. Hobi batean lurperatu zituzten, kare biziz estalita. 1995ean, haien gorpuzkiak identifikatu zituzten, eta, 2001eko uztailean, Auzitegi Gorenak 71 eta 75 urte arteko espetxe-zigorra ezarri zien Enrique Rodríguez Galindo Guardia Zibileko jeneralari, orduan Gipuzkoako gobernadore zibila zen Julen Elgorriagari eta Ángel Vaquero, Enrique Dorado eta Felipe Bayo guardia zibilei, gertakariongatik.

Epaiak “frogatutako egitateak” atalean zehaztu zuenez, 1983an, orduan Guardia Zibileko komandantea eta Gipuzkoako gobernadore zibila zirenek, “bazekitenez Barne Ministerioan gero eta zabalduago zegoela Frantziaren hegoaldean errefuxiatuta zeuden etakideen kontra ekintza biolentoak egitea onartzeko ideia, talde horren jarduera terrorista amaiarazteko tresna gisara, garai hartan benetan odoltsua baitzen, esku hartu behar zutela erabaki zuten, eta aurkitzen zituzten etakideak Frantzian atxilotzen eta Espainiara lekualdatzen saiatu ziren, informazioa lortze aldera, nahiz eta gero **desagerrarazi behar** izan [letra lodia gurea da], inork gertaera haien berri izan ez zezan”.

Joxi Zabalaren senideek min ikaragarritz gogoratzen dute 1995eko ekainaren 21a, egun hartan iritsi baitziren Lasa eta Zabalaren gorpuzkiak Hondarribiko aireportura, Tolosako hilerrian hobiratzeko. Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak aireportua hartu zuten, eta oldarkor kargatu zuten han bildutakoen aurka. F.A.-k, Joxiren amak, gomazko pilotekin tiro egin zietela eta borra-kolpeak eman zizkietela gogoratzen du: “Pilotak bota eta bota. Orduan, atzetik joan ginen, eta bertaratu ginenean eman zizkiguten *pelotazoak* eta *porrazoak*; kotxean mareatuta etorri ginen”.

Familiarentzat, are mingarriagoa izan zen Ertzaintzak Tolosako hilerriaren barruan izandako jokaera. Hilketak zeramatzan ibilgailua sartu zenean, familiak, esparrura nekez sartzea lortu ondoren, ertzainez inguratuta ikusi zuen bere burua. Nahiz eta senideak izan, “astindu, lurrera bota, buruan kolpatu” zituzten, eta honela gogoratzen dute gertaera hura J. eta E. Joxiren anaiek: “burua urratuta, ostikoka eta horrela. Tratu hori eman ziguten”. “Hori lotsagarria izan zen, sekulako lotsagabekeria”... J.M. anaia nagusia ere kolpatu egin zuten, ama babesten ari zela. Arrebetako batek honela deskribatu zuen: “Eta denbora guztian ze begirada, animalien begirada, eta murtzikatzen zerbait. Zer-nolako sustantzia hartzen ari ziren?”.

Familiak salaketa jarri zuen, baina ez zuen aurrera egin. “Ez zen inolako barkamenik eskatu; are gehiago, izan zen oso ‘proportzionala’, esan zuten. Hitzak horiek izan ziren”. Beste behin ere, familiak ez zuen merezitako babesik sentitu: batetik, jendaurrean esan zuten karga “guztiz proportzionala” izan zela, eta, bestetik, mezulari bidez jaso zuten Eusko Jaurlaritzaren barkamen-gutuna.

Batzorde honetan egindako eskaerarekin, Joxi Zabalaren familiak espero du beren senidea Espainiar Estatuko gailu polizial eta parapolizialen biktima gisa aitortzea. Aitortza publikoa eskatzen dute. Gertatutakoa ofiziala izatea eskatzen dute. Uste dute garrantzitsua dela “Eusko Jaurlaritzak benetan sentitzea gure familiei giza eskubiak urratu zaizkiela”. Uste dute familiako kide guzti-guztiek jasan dutela “tortura psikologikoa, hainbat urtez, isilean”.

3.2. Bala-tiroengatik hildakoak

Batzordeak tiroz hildako bost pertsonaren berri izan du; tiroak, hurrenez hurrez, Guardia Zibilak, Polizia Nazionalak (errepideko kontrol batean eta Madrilen ETA-

pm-ren komando bat atxilotzeko egindako operazio batean) eta zerbitzuz kanpo zegoen agente batek egin zituzten.

- Atal honetan, V.M.P.E. gaztearen kasua sartzen da. Portugaleteko gazte hura 1975eko urtarrilaren 20an hil zen, kalean propaganda komunista banatzeagatik atzetik jarraitu zion guardia zibil batek distantzia laburrera jaurtitako balaren ondorioz.

Familiak ahalegin handia egin du benetan gertatu zena jakin dadin, ez duelako nahi V.M. gaztearen heriotza bidegabea ahanzturan geratzerik. Instantzia judizialek behin eta berriro ukatu dien egia behar du. Bidegabekeria-sentimendu horrekin bizi da etengabe. Halaber, adierazi dute diskriminatuta sentitzen direla “terrorismoaren biktima” izendatutakoei dagokienez. Legearen mugak gaindituta, Batzordeak justizia egin ahal izatea eta beren senidea Estatuaren terrorismoaren biktimatzat jotzea nahi dute, ez motibazio politikoko indarkeriaren biktima gisa aitortzea bakarrik.

Nahi dutena da aitor dadila “V.M. ez zela oldarkorra, gizarte hobe baten alde borrokatu zuela, gizon hark hil egin zuela eta klase politiko buruzagi batek krimen haiek guztiak sustatu zituela. Ez gaude Guardia Zibilaren aurka, ezta inoren aurka ere; gure anaia biktima integraltzat jotzea nahi dugu, terrorismoaren gainerako biktima guztiak bezala”.

“Beste indarkeria batzuen biktimak ezagutzen ditugu; haiekin hitz egin izan dugu, eta ondo moldatu izan gara. Eta indarkeria mota horrek esan nahi duen horretan ulertzen dugu elkar, indarkeriak jatorria diktadura batean edo talde militar batean izan gorabehera; mina eta guztia ulertzen dugu, horrexek batzen gaituelako. Eromen horrek eta bizitzarekiko errespetu-falta horrek batzen gaitu, absurdo horrek”.

Oso ondo baloratzen dute urtarrilak 20 guztietan Portugaleteko Rantxe plazan lore-eskaintza batekin anaiari egiten dioten omenaldia. Anaia maite izan zuten eta gogoratzen duten pertsonekin elkartzea estimatzen dute. Bestetik, espediente honetan aurkeztu duten dokumentazioa Gogora institutuan artxibatzea eta aske kontsultatu ahal izatea nahi dute, momentuz egia hedatu ahal izateko beste bide bat dela uste dutelako.

- Batzordeak, halaber, balioetsi du bizitzeko eskubidea urratu zela Bergarako senar-emazte batzuen heriotzan. Gasteizko irteeran gertatu zen, errepideko kontrol batean, 1982ko urriaren 16an. V.A.C. eta M.A.B.L. beren Seat 127 zurian zihoazen, Polizia Nazionalak tiroz hil zituenean, ibilgailuarekin maniobra bat egiten ari zirela. Biak hil ziren gertaeren lekuan. Hurrenez hurren, 59 eta 52 urte zeuzkaten, eta lau seme eta alaba bat zeuzkaten.

Batzordeak uste du Polizia Nazionalak saihestu zitezkeen hutsegite operatibo larriak egin zituela bien heriotza ekarri zuen jarduketa neurrigabe eta zabar hartan. Auzitegi Gorenaren doktrina bateratuaren arabera, polizia-agenteek, indarra erabiltzen dutenean, zorrotz errespetatu behar dituzte premia- eta proportzionaltasun-printzipioak. Ildo berean, Nazio Batuen **Giza Eskubideen Batzordeak** (Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 1966koa), bizitzeko eskubideari buruzko 36. Ohar Orokorrean (2019), argi adierazi zuen hilgarria izan daitekeen indarraren erabilera muturreko neurri bat dela eta berehalako mehatxu baten aurrean bizitza babesteko edo lesio larriak saihesteko baino ez dela jo behar baliabide horretara.

Zentzu berean, torturari edo bestelako tratatu nahiz zigor anker, gizagabe edo umiliagarri buruzko **NBERen errelatore bereziak** adierazi zuen estatuko agenteen in-

dar-erabilera bidezkoa izan dadin ezinbestean bete behar direla, oso-osorik bete ere, *legezkoatasun-, premia-, proportzionaltasun- eta zuhurtasun-printzipioak*. Hala, premia-printzipioaren arabera, indarraren erabilerak “saihestezina” izan behar du, biolentoak ez diren edo hain kaltegarriak ez diren baliabideak erabiltzea eraginkorra ez denean bakarrik, eta “ez du eragin behar behar-beharrezkoa dena baino min handiagorik”. Bestetik, zuhurtasun-printzipioaren arabera, “ahal dela, indarraren erabilera gutxiagotuz planifikatu, prestatu eta burutu behar dira operazioak, eta, indarra nahitaez erabili behar bada, gutxienekora murriztu behar dira indar horren ondoriozko kalteak” (A/72/178 txostena, 2017).

V. eta M.A. senar-emazteen seme-alabek Batzorde honi esan zioten “erabat babesgabe” geratu zirela. “Ez geneukan inoren babesik. Inorena ez. Inork ez zigulako bere egunean lagundu”. “30 urtean baino gehiagoan, inor ez da jarri gurekin harremanetan”. “Delituok preskribatu badira ere, inor ez zaigu etorri esatera ba bai, egun hartan oker bat izan genuen. Inor ez, inor ez”. “Kasua erabateko ahanzturan geratu zen. Urte batzuetara, kalte-ordain ziztrin bat jaso genuen, isil gintezen”.

Handik urte batzuetara, omenaldiak antolatu zituzten Gasteizen eta Bergaran. “Ikusten ari gara, gutxienez, gurekin gogoratzen direla”. Era berean, adierazi dute Bergaran gurasoei aitortza egiteko oroimen-plaka bat egotea gustatuko litzaiekeela, Gasteizen dagoen bezala. Atsekabetuta daude agintariek gertakaria ahaztu zutelako, eta orain, Batzorde honi egindako eskaerarekin, biktimatzat har ditzatela nahi dute, jasandako sufrimendua nolabait konpentsatzea. “40 urteren ondoren geu ere biktima gisa aitortu gaitzaten erregutzea eta sufrimendu hori guztia nolabait konpentsatu ahal izatea”.

Familiari gustatuko litzaioke ebatzi gabeko atentatu terroristak argitzea eskatzen den irimotasun berarekin eska dakiola Eusko Jaurlaritzari polizia-indarkeriaren biktimei buruzko kasuak argitzea, zigorgabe jarraitzen dutelako. Uste dute garrantzitsua dela beren testigantza jasota geratzea, belaunaldi berriek errealitate horren berri eduki ahal izan dezaten. “Ez ziren atxilotzera joan, hiltzera baizik. Hori oso argi dago... Horregatik ez zioten utzi inori sartzen, ezta autoa ikusten ere, ez kazetariei, ez inori. Ez zen istripua izan. Argi eta garbi esan behar da hilketa izan zela, babesgabe zeudelako”.

- Batzordeak, bestetik, biktima gisa aitortu du J.M.A.. Poliziak tiroz hil zuen, 1975eko uztailaren 30ean, Madrilgo erdialdeko kale batean, ETApn-ren komando bateko kideak atxilotzeko operatibo batean (inteligentzia-zerbitzuek agente infiltratu bat zuten komando horretan). Nahiz eta Batzorde honek ezin izan duen argitu zer gertatu zen arratsalde hartan Madrilen, J.M.A.-ren biktima-kondizioa erabakitzeke orduan giltzarria izan da hark jasandako giza eskubideen (kasu honetan, bizitzarako eskubidearen) urraketaren “dimentsio prozesala”. Ezin izan ziren bertsio ofizial kontraesankorrak ebatzi (hasiera batean, suizidioa izan zela esan zuten; gero, bihotzekoak eman ziola, eta, azkenik, tiro-trukaketa izan zela), ikerketa ez zelako independentea izan, botere judizialak diktaduran zituen egiturazko inguruabarrengatik.

Halere, egiturazkoa denetik harago, kasu zehatz honetan, jurisdikzio militarren aurrean eta ohiko zigor-jurisdikzioaren aurrean abiatu ziren prozedurak, eta bietan “desagertu” ziren elementu giltzarriak –izatezko presuntzio berriak–; hala nola, autopsia, gorpua altxatzeko ekintzaren txostena, balistikako txostena eta gorpua altxatu zuten uneko argazkiak. Ikerketak opakoak izan ziren bere garaian, eta gaur arte.

J.M.A.-ren familiari ez zioten aukerarik eman gorpua ezagutzera joateko, eta gorpurik gabe ehortzi behar izan zuen. Handik 17 hilabetera utzi zioten gorpuzkiak Almudena hilerritik hartu eta Gipuzkoara eramaten. Gaur egun eskuragarri ditugun zantzu

guztiek aditzera ematen dute ikerketa ez zela batere zehatza –eta eraginkorra– izan, eta oso argi dago familiak ez zuela bertan parte hartu, edo ez zela gutxieneko azterketa publikorik egon. Hortaz, ez zen egon ez ikerketa independenterik, ez ikerketa zehatzik, ez ikerketa berehalakorik, ez familiaren inplikaziorik –guztiz kontrakoa–, ez azterketa publikorik. Gaur egun ere, ez da inondik ageri berez –baldin eta ikerketa-eginbideak egiazki egin bazituzten eta behar bezala gorde– egon beharko litzatekeen dokumentazio garrantzitsurik.

Horrenbestez, behin betiko egiaztatutzat jo behar dugu bertsio prozesalean bizitzarako eskubidea urratu zela. Labur: informazio ofizial fidagarririk ez dagoenez, bistakoa baita ez zituztela ikerketa-kanonak bete, babesgabetasun-egoera objektiboa sortu da: suizidioaren bertsio ofiziala eta indar hilgarria erabiltzeko egoera legitimoa zegoelako bertsioa hutsalak dira, eta izatezko presuntzioak, berriz, Estatuko agenteen jarduketaren aurkakoak dira. Beraz, agenteen jarduketak –dimentsio prozesalean– giza eskubideak urratu zituela ondoriozta dezakegu, eta bizitzarako eskubideari eragin ziola.

Horri gaineratu egin behar diogu polizia-operazioak, multzoan hartuta, ikusirik informazio nahikoa zutela, zuzenekoa, agente infiltratu bat baitzeukaten, bestelako diseinu eta plangintza batzuk eduki beharko zituzkeela, polizia-kidegoetako eta zerbitzu sekretuetako agente gehiegik hartu baitzuten parte eta, azkenean, komunikatzeko eta koordinatzeko sistema eta agindu-katea eskasak zirenez, indar hilgarria baliatu baitzuten. Plangintza desberdin eta arduratsuago batek indar hilgarriaz bestelako baliabideetara jotzeko aukera emango zukeen; hortaz, operazioaren amaierako zatian indarra erabiltzea “guztiz beharrezkoa” izan zelako aukera baztertu behar dugu.

- Era berean, R.M.A. ere biktimatzat jo dugu; 1975eko urriaren 30ean, errepideko hotel bateko aparkalekuan hil zen, Oiartzun (Gipuzkoa) inguruan, zerbitzuz kanpo zegoen polizia batek harekin eztabaidatu ondoren botatako tiroaren ondorioz. Tiro hilgarria jaurti zuen polizia Gerra Kontseiluan epaitu zuten, eta sei urte eta sei hilabeteko espetxealdi handiko zigorra ezarri zioten, baita R.M.A.-ren oinordekoak 800.000 pezetarekin indemnitzatzeko betebeharra ezarri ere. Dokumentazioak adierazten duenez, pertsona horrek bahitura–exhortoa jaso zuen 1982an, kalte–ordaina ez ordaintzeagatik, espetxe–zigorra bete eta Polizia Nazionaleko lanpostura itzuli ondoren.

3.3. Talde parapolizialen atentatueta hildakoak

Txosten honek hartzen duen aldian, Batzordeak talde parapolizialen atentatueta hildako hiru pertsonaren berri eduki du. Kasuren batean, ez zen egiletza inoiz argitu, eta, beste batzuetan, ANEK edo BVEk aldarrikatu zituzten ekintzak. 12/2016 Legeak, ezarpen-eremuaren barruan, berariaz aipatzen ditu giza eskubideak urratzearen ondorioz bizitza erasan izan den kasuak, “motibazio politikoko helburuekin egindako jardueraren batean edo jarduera batzuetan” egin badira eta “bertan funtzionario publikoek parte hartu” badute, “hala beren zereginen exekuzioaren baitan nola beren zereginen exekuziotik kanpo”, edo “norbanakoek parte hartu” badute, “hala taldean jardunez nola era isolatuan, bakarka eta kontrolatu gabe”.

- Hala, bada, Batzordeak I.E.O. aitortu du talde parapolizial baten jarduketa kriminal baten lehen biktima mortal gisa. 1975eko urriaren 5ean, gaueko hamaikak aldera, hiru gizabanako armatu oldarka sartu ziren I.E.O.-k familiarekin kudeatzen zuen jatetxera, Kanpazarreko muinoan (Elorrio, Bizkaia), eta metrailatu egin zuten. Berehalakoan hil zen, eta erasotzaileek ihes egin zuten. Atentatu hilgarri haren egiletza ez zen inoiz

argitu, eta kontrolgabeen talde bati egotzi zitzaion. Familiak atentatu gehiago jasan zituen, hizpide dugun honen aurretik eta ondoren, eta baten bat hilgarria izan zen.

Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren harira sortutako batzordeak kasu hau aztertu zuen, baina ez zuen onetsi, dekretu horren ezarpen-eremua murriztaileagoa zelako Legearena baino. Kasu honek eta beste batzuek argi erakutsi zuten lege-estaldura egokia behar zela motibazio politikoko indarkeria-testuinguruetan giza eskubideak urratu dizkieten biktima guztientzat, eta, horrela, oraingo legea sortu zen.

- 1979ko irailaren 13an, goizeko zortziak pasatxo zirela, J.E.S. larri zauritu zen, pertsona batek metrailatu zuelako lanera joateko asmoz Biarritzeko etxe ondoan aparkatuta zuen ibilgailura igo berri zenenean. Baionako Saint-Leon ospitalera eraman zuten ambulanziaz, premiazko ebakuntza egin zioten (birikan zeukan bala kentzeko), eta ZIUn ospitaleratu zuten, larri. 1979ko urriaren 5ean hil zen.

Atentatua ANEk aldarrikatu zuen: garai hartan Frantziaren hegoaldean errefuxiatuta zeuden euskaldunen aurka jarduten zuten talde parapolizial batzuek erabiltzen zizuten siglak ziren horiek. J.E.S. hil ondoren, alarguna eta bi seme txikiak Donostiara itzuli ziren; familiak eta lagunak lagundu zieten, agintariek ez baitzieten inoiz laguntzarik eman.

Batzorde honi egindako eskaerarekin, J.E.S.-ren familiaren asmoa da erantzukizun politikoa aitoren kontrako atentatuan, baita beste askoren kontrako atentatuetan ere, diru publikoarekin ordaintzen ziren eta Estatuak zuzentzen zituen mertzenarioek gauzatzen baitzituzten. Atentatua egin zutenak agindu-emaitan tresna hutsak zirela uste dute. Nahiz eta ez jakin krimenaren egileei zer zigor jarri zieten eta zenbat denbora igaro ahal izan zuten espetxean, badakite guztiaren erantzule politikoek, aske egoteaz gainera, zigorgabetasunaz eta nolabaiteko prestigio sozialaz gozatzen dutela, komunikabideek erreferente bihurtzen baitituzte, eragin duten mina kontuan hartu gabe. Horrek birbiktimizatu egiten dituela sentitzen dute.

Familiak, era berean, uste du Espainiar Estatu oraindik ez dagoela prest erabilitako indarkeriaren inguruan erantzukizunak onartzeko. Hala ere, uste du garrantzitsua dela Batzorde honek antzeko kasuekin lotutako pertsonen zuzeneko testigantzak biltzea eta etorkizunerako gordetzea. Orain arte aitortu ez diren beste sufrimendu horiei arretea ematea nahi dute; izan ere, igarotako denbora dela-eta, berehalakoan egiten ez bada, ezin izango da inoiz egin. Halaber, simetria nahi dute Estatuak terrorismoaren biktimei eta haien senideei egiten dien aitortzarekin (kalte-ordainei eta lan edo laguntza psikologikoagatik laguntzei dagokienez, adibidez), haiek ez dutelako inoiz horrelakorik jaso.

- Batzordeak uztailaren 28ko 12/2016 Legearen esparruan aitortu duen beste kasu bat M.J.B.-ren bahiketa, bortxaketa eta hilketarena da. 1980ko maiatzean gertatu zen, gazteak 16 urte zituela, Loiola auzoan (Donostia), eta adin bereko F.J.R. bikotekidea larri zauritu zuten. Orain arte, biak baztertu izan dira terrorismoaren biktimak babes-ten dituen legeditik, Justiziak administrazio-bidean balioetsi zuelako kasu honetan ez zela egiaztatu "egitateen egilea bakea eta herritarren segurtasuna larri asaldatzeko asmoz jarduten zuen talde edo banda bat zenik".

Argudio horrek, baina, ez zuen kontuan hartu, Batzorde honen iritziz modu ulertezinean, M.J.B.-ren heriotza Batallón Vasco Español taldeak aldarrikatu zuela bere garaian eta, gerora, biak motibazio politikoko indarkeriaren biktimatzat jotzeko jarduketa eta erabaki instituzional ugari egin direla. 2002ko maiatzaren 28an, Hiriko

Urrezko Domina terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei ematea erabaki zuen Donostiako Udalaren osoko bilkurak, eta biktimen artean sartu zituzten M.J.B. eta F.J.R. 2007ko uztailearen 20an, Donostiako Kursaal antzokian egindako ekitaldi batean banatu zuten domina. Horrela, baliozkotasuna eman zitzaion Batallón Vasco Español taldearen aldarrikapenari, eta eskuin muturreko terrorismoaren biktimaren kondizioa aitortu zitzaien.

2008an, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak (Maixabel Lasa zuen buru, eta Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailaren mendekoa zen) eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak (Jon Mirena Landa zuen buru, eta Justizia Sailaren mendekoa zen) M.J.B.-ren bahiketa- eta bortxaketa-kasua jaso zuten beren txostenetan, baita F.J.R.-ri eragindako zauri larriak ere, eta Batallón Vasco Español taldeari egotzi zioten indarkeria horren egiletza. Txostenean adierazten denez, Batallón Vasco Español, Triple A eta Grupos Armados Españoles eskuin muturreko taldeak ziren, eta “tolerantzia –edo konplizitate– handiarekin jarduten zuten, garaiko polizia-aparatuetako sektore garrantzitsuekin”. Halaber, honako hau nabarmentzen du: “ekintza biolento horien zati handi batek ez zuen polizia-ikerketa egokirik izan, eta horrek galarazi egiten du garrantzi bereziko datu bat argitzea, hots, zenbaterainoko konplizitatea, lankidetzeta edo inhibizioa egon ote ziren polizia-instantzia jakin batzuen eta ekintza kriminal horien artean”. Txostenak, amaieran, datu bat ematen du: “talde horiei egotzitako 74 ekintza terroristetatik –66 lagun hil zituzten– 33tan bakarrik ireki ziren eginbide judizialak, eta horietatik 17k bakarrik jaso zuten epai irmoa”.

2016an, “Euskal kasuan giza eskubideen aurka egindako urraketek argazkiak (1960-2010)” argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta, bertan, “ATE, BVE, GAL edo GAE taldeek bizitzarako eskubideari egindako urraketak” atalean, M.J.B. ageri da. 2021eko ekainean, Donostiako Udalak, Loiolako Latsari plazan, M.J.B. bizi zen etxetik hurbil, oroimen-plaka bat jarri zuen, non “BVEren biktima” gisa agertzen baita.

Eragindako familiek itzaropena galdu dute, eta ez dute uste kasu honetan justizia egin ahalko denik, ez eta benetan zer gertatu zen edo errudunak nor edo nortzuk izan ziren jakitera iritsiko direnik ere. Era berean, kexu dira, Estatuak ez dituelako M.J.B. eta F.J.R. biktimatzat hartu nahi izan.

Batzordearen irizpenak nabarmendu nahi du giza eskubideak urratu direlako susmoa dagoenean estatuak ikerketa eraginkor bat egin behar dutela, nahitaez. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak baieztatu duenez, giza eskubideen urraketek buruzko alegazio sinesgarriak egonik ikerketa eraginkorrik ez egiteak biktimaren eta/edo haren senideen errekurtsorako eskubidea urra daiteke. Auzitegi berberak azpimarratu egin du, gainera, ikerketak urraketek erantzuleak identifikatzeko aukera eman behar duela.

Batzorde honen ustean, emakumea izateak arrisku berezi eta berezia ekarri zion M.J.B.-ri, aipatutako bortxaketan ikus daitekeenez, eta gaztearen kontra ezarritako sexu-indarkeria ere tortura fisiko, sexual eta psikologikoko ekintzak izan zirela: ekintzok guztiz debekatuta daude, nazioarteko *ius cogens*-en mende.

3.4. Balaz zauritutakoak

Balaz zauritutakoen kasuak jasoko ditugu hemen. Kasuotan, honako hauek izan dira ekintzen egileak: batetik, agintaritzako agenteak, atxiloketa batean, protestak eta manifestazioak geldiarazteko ikaragarritzako errepresioa ezartzen edo zerbitzuz kanpo egonik, eta, bestetik, suzko armak erabiltzen zituzten eskuin muturreko taldeak (Cristo Rey).

- Azken adibide horrek eragin zion J.M.L.-ri. 1978an, Madrilen zegoen soldadutza egiten, eta, kantautore euskaldun baten kontzertutik irtetea, lagunekin kaletik zihoala, euskaraz abesten, tiro bat jaso zuen hankan. Laguntzera hurbildu zitzaion lagun bat ere balaz zauritu zuten. Eraso Konstituzioa onetsi baino hilabete batzuk lehenago gertatu zen, eskuin muturreko taldeek ekintza biolentoak erabateko zigorgabetasunaz egiten zituzten testuinguru batean.

- Bestalde, A.G.E. daukagu. 1985ean, aisialdiko lokal bat kudeatzen zuen Lasarte-Orian, eta gutxiatik salbatu zuen bizitza, zerbitzuz kanpo eta mozkor zegoen polizia batek burura egin baitzion tiro. Polizia graziako tiroa egiten saiatu zen, baina arma trabatu zitzaion.

- Bestetik, D.M.V.-k 7 urte zituen 1982ko urteko lehenengo egunean balaz zauritu zuten. Bi hanketan jaso zituen tiroak, gurasoekin eta arrebeekin Errenteriako Gamon zumardiko taberna batean zegoela. Handik hurbil, ETAko presoan aldeko manifestazio bat amaitu berri zen, Santa Maria espetxean (Cadiz) preso batzuk gose-greban baitzeuden, eta N-1 errepidea itxita egon zen, gurpilak zulatuta zituen autobus bat gurutzatuta zegoelako. Uniformedun bi guardia zibil Land Rover batetik jaitsi, eta arma automatikoekin tiroka hasi ziren; hainbat lagun zauritu zituzten.

Biktimak gorputzean erredura sentitu zuela eta eskailera batzuetatik erori zela gogoratzen du. Arrebak odol-putzu hartatik altxatu zuenean, berrirori erori zen. Gogoratzen duenez, amaren min-aldarrien artean jende asko ikusi zuen, zapiak eskuan, hanketako zaurietatik jario bizian zuen odolari eusteko. Zorionez, hurbileko artile-establezimendu bateko jabearen semeak bizitza salbatu zion, tornikete batekin. Gero, Donostiako Gurutze Gorriaren zentrorera eramane zuten ambulanziaz; esna iritsi bazen ere, konortea galdu zuen. Aitak une larria bizi izan zuen, ez ziotelako utzi ambulanziera igotzen eta ez ziotelako esan zein osasun-zentrotara eramango zuten; hortaz, orduak eta orduak eman zituen semearen bila, Egoitza Sanitarioan, artean bizirik zegoen jakin gabe. Amak, hain egoera latzean, nerbio-atake bat izan zuen.

Biktimak baieztatu du torniketea egin zion gaztearekin hitz egitea gustatuko litzaiokeela, eskerrak emateko; hura aurkitzen saiatu den arren, ez du oraindik lortu. Batzorde honi eskaera eginez, poliziaren indarkeriaren biktimatza har dezaten nahi du. Hala ere, tiro egin zion guardia zibilak (epaiketaren ostean ikusi zuen) barkamena eskatzea eta egindako akatsa aitortzea gustatuko litzaioke.

- Azkenik, guardia zibil batek jaurtitako bi tirok M.U.L. jo zuten. Bada, M.U.L. Segoviako espetxean zegoen, auzitegi militarrek ezarritako hamabi urteko espetxe-zigorra betetzen, eta, 1976ko apirilean, protagonista izan zen 29 presoren “ihesaldi” ezagunean. Guardia Zibilaren patruila batek aurkitu zuen taldea, Nafarroaren iparraldean, Frantziako mugatik hurbil. Harrapaketan, Oriol Solé adiskidea hil zuten, eta M.U.L.-k balak jaso zituen besoan eta bizkarrean. Biktima gisa aitor dezaten egin duen eskaeraren bidez, gehienbat isilpean gorde izan diren indarkeria eta errepresioa ezagutzera ematea nahi du, berea bezalako mugimenduak eta antolakundeak sortzea eragin baitzuen zapalketa hark, Estatuaren indarkeriari erantzuteko.

3.5. Gomazko pilota batek jotzeagatik zauritutakoa

- Batzordeak R.U.A.-ren kasua aitortu du: 13 urte zituela, ikusmena galdu zuen eskuineko begian, polizia nazional batek 1986ko abuztuan, Gasteizko jaietan, gomazko pilota bat jaurti zionean. Bizimodu nahiko normalizatua izan badu ere, non, itxuraz behintzat, arrasto fisikoak ez baitira ia antzematen, eskuineko begiko ikusmena galtzeak gehiegizko lana egitea eragin dio ezkerreko begiari, baina, erreferentziarik ez duenez, ez da esfortzu hori baloratzeko gai.

Legearen 2. artikuluko betekizunak betetzen ote dituen baloratzeko, kontuan hartu dugu R.U.A.-ri jazotakoa ez zela gertaera isolatua izan, hainbat urtez herri askotan errepikatu ziren jarduketak izan baitziren. Hala, “Indarkeria politikoaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketen biktimak” txostenak (Eusko Jaurlaritza, 2008) jada esaten zuenez, “giza eskubideen aldeko antolakundeak kezkatuta daude gomazko piloten erabilerarekin. Gomazko pilotek pareten kontra jotzen dute, eta distantzia luzeak egiten, edozein manifestazio-deialdirekin zerikusirik ez duen jendea dabilen kaleetan barrena. Gertuko helburuei tiro egiten zaie, luzera doan materiala erabiliz, eta, horrenbestez, ezinezkoa da pertsona guztien eskubideak bermatzea. Amnesty Internationalek bere kezka adierazi zuen (“Mercaderes de dolor”, 2003), “gomazko balak lehen aukera gisa erabiltzen zirelako eta ez ondorio larriagoak saihesteko azken bitarteko gisa”.

3.6. Eraso larriengatik zauritutakoak

Ordena Publikoko Indarren jarduketa neurrigabeen ondoriozko kasu hauek aitortu ditu Batzordeak. Baliaezintasun handiko arrastoak izan zituen kasu honetan, uztailaren 28ko 12/2016 Legean jasotzen den gehieneko kalte-ordaina aitortu zitzaien 2008an hildako biktimaren senideei. Horrelako aitortza eduki duen lehen kasua izan da.

- 1979ko urtarrilaren 14an, Euskadiko eta Nafarroako zenbait udalerritan, nuklearren aurkako manifestazio baketsuak egin ziren, eta milaka lagunek hartu zuten parte horietan. Gobernu Zibilak elkarretaratzeak debekatu zituen, eta Polizia Armatuko agenteek kolpeka sakabanatu zituzten bertaratuak. Donostiakoa eguerdiko hamabietan abiatu zen Bulebarretik, eta Hernani, Miramar eta Urbieta kaleetatik jarraitu zuen, “Lemoiz apurto” eta bestelako oihuekin. Manifestazioa, lasai zihoala, Urbieta eta San Martin kaleek bat egiten duten tokiraino iritsi zenean, indar publikoak istiluen kontrako materialarekin kargatu zuen manifestarien aurka. Eraso neurrigabea izan zen, eta sakabanatzeko aurretiko abisurik gabe egin zuten: atzetik egin zioten eraso jai-giroan zihoan manifestazio baketsu eta plural hari, adin guztietako pertsonak egon arren (haurrak eta haur-kotxeak, besteak beste).

Testuinguru hartan egin zioten eraso bortitza J.C.M.-ri; beste batzuekin batera, atari batean babesten saiatu zen, baina agenteek atzetik jarraitu zioten, eta bigarren solairuko eskailera-buruan harrapatu zuten. Bada, behin eta berriro kolpatu zuten, inolako arrazoirik gabe, funsgabe eta amorrus (bereziki, buruan), eta kalte fisiko larriak eragin zizkieten. Hamabost egun igaro zituen koman, eta bi urte eta erdi egin zituen Gipuzkoako Poliklinikan ospitaleratuta. Errehabilitazio-aldi luze baten ondoren, 1981eko abenduan, baliaezintasun handia aitortu zioten, eta hilarteko pentsioa kobratzen hasi zen. 2008ko martxoaren 3an hil zen, 53 urte zituela.

Etxeko naiz nazioarteko estandarrek, estatuko agenteek indarra erabiltzeari buruz, askotan errepikatu dute indarraren erabilera orok bat egin behar duela legezkotasunaren, premiaren, proportzionaltasunaren, zuhurtasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko printzipioekin. J.C.M.-k jasotako kolpeen ondorioak oso larriak izan ziren: lesioek eta geroko tratamenduak bere eta familiaren bizitzak baldintzatu zituzten.

J.C.M. larri zauritu zuen polizia-kargak ez zuen helburutzat ordena berrezartzea, kontrakoa baizik: izu-egoerak sorrarazi zituen manifestarien, oinezkoen eta egoiliarren artean. Batetik, ez zuten bete protesten testuinguruan pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa babesteko behar diren baliabide guztiak hartzeko betebeharra, eta, bestetik, ez zuten eduki indarra erabiltzean izan behar den oinarritzko arreta; hala nola, gertaerak

erregistratu eta dokumentatzea, agenteen identifikazioa ziurtatzea eta nolabaiteko ondorio larriak dauzkan edozein indar-erabileraren berri ematea.

Hala eta guztiz ere, handik urte batzuetara, J.C.M.-k sosegu miresgarria eta bizipoz ikaragarria zituen. Aldizkari batek bere desioez galdetu zion 1993an, eta honako hau erantzun zuen: “Jakin dadila gustatuko litzaidake. Gertaerari buruz hitz egiten dudana bakoitzean, urduri ipintzen naiz, baina bizitzen jarraitu behar dugu. Aurrera begiratu behar dut (...) Justizia gehiago eskatuko nieke eskuinari eta ezkerriari. Kontua ez zen izan nola tratatu ninduten edo zer eman zidaten, nola baizik: opari bat balitz bezala. Nire eskubidea zen. Gertatutakoaren erruduna Gobernuak izan zen. Gorrotoak harrapatu zuen”. (...) “Justizia baino ez nuke eskatuko, besteentzako dagoen berbera”.

Batzorde honetan egindako eskaerarekin, 1993ko elkarrizketan eskatu zituen aitortza eta justizia eskatu dituzte anai-arrebek, haren izenean. Berandu bada ere, dagoeneko ez baitago gurekin, anaiak eta familia osoak bizitako bidegabekeria zati batean erreparatu nahi dute, memoriaren garrantzian sinesten dutelako: historiak benetan gertatu zena jasotzea nahi dute.

- Batzordeak, halaber, biktima gisa aitortu du F.J.A.Z.. Ezkerreko begia galdu zuen, Gladys del Estal militante ekologistaren hilketa salatzeke egin zen greba-egunean, Polizia Armatuko agente batek eraso basatia egin ziolako (Gladys del Estal Guardia Zibilak hil zuen, tiroz, 1979ko ekainaren 3an, Tuteran). Gladys hil eta bi egunera, hileta jendetsua egin zuten Donostian, Egia auzoko Frantziskotarren elizan. Hiletatik irtetean, liskarren aurkako indarrak bertaratuen kontra oldartu ziren; iturri batzuen arabera, 5.000 lagun zeuden.

F.J. eta lagun bat atari batean babestu ziren; bosgarren solairuraino igo, eta, han, zenbait agentek harrapatu zituzten. Kolpeak, oinkadak eta ostikoak eman zizkieten. Halako batean, agente batek iletik heldu, betaurrekoak kendu, eta, futbol-baloi bat balitz bezala, sekulako ostikoa eman zion ezkerreko begian. “Bazekien zertan ari zen! Gorputzeko edozein tokitan eman ahal dizu, ba, adibidez, eskua zapaldu zidan, hautsi arte; ba, berdin, beste eskuan eman ahal izan zidan, edo buruan, baina ez. Begira jo zuen! Iletik horrela heltzea eta atezain batek baloia ateratzen duen bezala jotzea. Pum! Eta...”. Zauriak eragindako odol-putzua ikusi zutenean, polizia desagertu egin ziren, eta F.J. eta laguna atarira jaitsi ziren. Ordurako, beldurrak airean egoteagatik atek ireki ez zituzten bizilagun batzuek artatu zituzten.

Batzorde honi egindako eskaerarekin, F.J.A.Z.-k nahi duena da bere lekukotza baliagarria izan dadila urte hauetan guztietan berea bezalako bidegabekeria askotan edo tortura-kasuetan mantendu nahi izan den zigorgabekeria ikusgai egiteko. Uste duenez, urrats honekin, bere egia erregistratuko da; halere, ez da oso baikorra, eta uste du “bigarren mailako” biktimek egoten jarraituko dutela. Dena dela, ezkututzen den beste egia hori datozen belaunaldiei transmitituko zaien kontakizunaren zati izatea nahi du.

3.7. Tortura eta tratu txar larriak pairatutakoak

Batzordearen aurrean aldi honetako torturei eta tratu txarrei buruz testigantza eman duten 49 pertsonetatik bost hiru aldiz egon ziren atxilotuta; hiru lagun lau aldiz; bat bost aldiz, eta bi zazpi aldiz. Are, pertsona bat bederatzi aldiz atxilotu zuten. Atxilotzeko eta torturatzeko toki aipatuena artean, Gipuzkoako Gobernu Zibila eta Guardia Zibilaren Antiguoko komandantzia nabarmendu dira (biak daude Donostian).

- “Frustrazioz bizi dut jende batek uste izatea ez dela tortura erabili”.

- “Ez diot inori opa horrelakorik!”

Aurreko bi txostenetan bezala, Batzordeak jarduketa-patroiak detektatu ditu erabilitako tortura-tekniketan eta haien etiologia kriminalean. Hona hemen batzuen azalpena: Diktaduran, askotariko ekitaldietan edo gertaeretan sarekada masiboak egiten zirenean, baita salbuespen-egoeretan ere, aztarnak uzteak ez zuen axola, eta, funtsean, atxilotua fisikoki nekatzea izaten zen helburua. Gero, *modus operandi* hori utzi gabe, tortura psikologikoa eta metodo sofistikatuagoak gailendu ziren, atxilotuak hausteko.

Batzorde honen aurrean, tortura mota hauen kasuistika azaldu da:

- **Hamar egun** arteko atxiloketa inkomunikatuak, terrorismoaren aurkako legedia aplikatuta. “Etxekoek ez zekiten non nengoen”. Beste kasu bat: “Aitari eta arrebari **esan zieten ez nengoela** Gobernu Zibilean **atxilotuta**, baina banengoen”.
- Arropa berarekin eta tratamendu medikorik gabe egon zen atxilotuta hamalau egunez.
- Oinutsik eta gerritik gora biluzik egon zen. Gorputz-enborra biluzik zuela, galdeketa zeuden poliziek **bizkarrean itzaltzen zizkioten zigarroak**.
- Hainbat ordu egin zituen **eskuburdinetatik zintzilik**, lurra ukitu gabe. Beste kasu batean, atxilotua tutu batzuetatik eseki zuten, eskuburdinak erabilia. Beste biktima bat nahiko altu zegoen burdin sare batera lotu zuten; beraz, **oin-puntetan** egon behar izan zuen, eskuburdinak eskumuturretan sartu ez zekizkion. Horrek tentsio, neke eta larritasun handiak eragin zizkion. Beste pertsona bat, goitik behera biluzik zegoela, **habe batetik eseki** zuten, eskuburdinekin, eta sabela kolpatzen zioten galdeketa egin bitartean.
- Asfixia-teknikak; hala nola, “**poltsa**” (“itolarria sentitu nuen, agoniaraino”) eta “**bainera**”. Azken horretan, taula batean etzan eta manta batean bildu ondoren, gonbitoak, zerrautsa, ileak eta txiza dituen ur zikinetara sartzen diote burua atxilotuari. Tortura-modalitate honetan, batzuetan, ontzi bat, azpil bat edo balde bat erabiltzen dute baineraren orde.
- Gorputz-ataletan **elektrodoak** jartzea. Edo simulakroa.
 - “Beste une batean, elektrodo bidezko tortura eragin zioten bularrean eta barrabiletan. Mahai batean etzanda zegoela, kable bat jarri zioten, bi puntetatik helduta, guardia zibilen elkarrizketa honako hau zela: “Aizu, kontuz ibili...”, “sartu eta irten izango da”, eta kablea entxufe batean sartu zuten. Hain **deskarga handia** jasan zuen, airean irten zen, aurrean zituen mahaia eta fokuarekin batera lurrera eroriz, odolatan eta erreta. “Nik ez dakit orduan zer bota nuen, aurreko mahaia, fokua... Dena garbitu nuen, ni lurrean nengoen, alkandora zerarekin... Alkandora kendu zidaten, garbitzeko eraman zuten, eta, gero, hemengo zera neukan beltz-beltz eginda. Eta medikuak, zer da hau? Eta pomada eman. Baina nola pomada eman? Ez duzue ikusten nola dagoen?”.
- **Exekuzio-simulakroa**, armekin (aho barruan, lokian...).
- Jarrera umiliagarriak. Goitik gora **biluztea**.
- Paretaren aurrean orduak eta orduak igarotzea, **zutik**, bermatu ahal izan gabe. Jaso dugun beste aldaera bat da esku bakoitzeko **atzamar bat paretan bermatzea**, hankak paretatik metro eta erdira daudela. Hirugarren bat: belauniko egotea, besoak gurutze-forman edukita eta esku bakoitzean pisua jarrita. Beste bat: 36 ordu

inguru egitea zutik, **sudurra pareta ukituz**, kolpekatuko dutelako mehatxupearan (Gernikako kuartela). Kasu guztietan, atxilotua nekearen nekeaz erortzen zenean, lurrean kolpatzen zuten.

- Senideak atxilotu zituztela eta torturatzen ari zirela esan zioten. Zaratak, oilhuak, intziriak, mehatxuak, grabaketak, negarrak... entzuten zituen. “**Anaiaren oilhuak eta intziriak** entzutea askoz ere okerragoa izan zen, nire torturek eragindako sufrimendua baino; benetan lazgarria eta jasanezina”.
- Urik eta janaririk ez ematea (“sei egun egon nintzen jan gabe, eta, seigarren egunean, dilistak eman zizkidaten”), **lo egiten ez uztea** eta ziegetan higienarik ez egotea (zikinkeria, gonbitoak lurrean, hezetasuna... baten batek arratoiak ikusi zituen). Denbora gutxi pasatzen zen galdeketa batetik hurrengora; ziegako argia beti zegoen piztuta, eta ezin zitekeen jakin eguna ala gaua zen; atsedena oztopatzen zuten; ziegak irekitzeko zaratek eragin egiten zuten (“berriro etorriko zaizkit”)... Ziegak **hormigoizko plataforma** bat zeukan, mosaiko batekin estalia, ohe-lanak egiten zituena. Manta oihalezkoa zen, fina, eta, beraz, bere gabardina erabili zuen estaltzeko.
- Nekatzeko beste teknika batzuk: kokoriko ibiltzea biribilean, askotariko aldearekin (“**ahatea**”, “**disco-jogailua**”, “**gurpila**”), eta beste ariketa nekagarri batzuk, hala nola, jarrera deserosoan egotea edo logelan bueltaka korrika ibiltzea, barra batekin kolpatzen zuen polizia bat atzetik zuela, “harik eta, akituta, lurrera erori eta kolpa zezaten utzi zuen arte”. Beste modalitate bat: kokoriko ibiltzea, esku-burdinak hanken edo buruaren atzetik lotuta edukita: “Sekula ere ez zara normal ibiliko berriro”.
- “**Kirofanoa**”: gorputz erdia mahai baten gainean eta agente bat hanken gainean eserita, presoak kolpeak jasotzen ditu sabelean, urdailean, diafragman, barrabiletan...
- Jipoiak galdeketa-gelan, **toalla busti** batekin, gerritik gora biluztu ondoren, eta jipoiak lekualdaketetan. **Kolpeak** buruan, askotariko objektuekin (**telefono-aurkibideekin, beisbol-batearekin, egunkari kiribilduekin...**), eta belarrietan, esku-ahurrekin. Kolpeak, baita ere, oinetan, zarta batekin, eta oinkadak behatzetan, takoiarekin. Ostikoak eta ukabilkadak. Kasuetako batean, biktima minez oihuka ari zela, “batearen alde estua sartu zioten ahora”.
- Iletik eta bizarretik tira egin zioten, eta **soilguneak** egin zizkioten.
- Atxilotuen **eskuburdinetan** jartzen zituzten oinak, beherantz indarra eginez, baita eskuburdinetara igota ere, eskumuturretan eta sorbaldetan min emateko.
- Polizia-etxera iritsi eta berehala, **baldekada bat ur hotz** bota zioten, bat-batean.
- Atxilotuak gogoan dauka mozkor zeuden lauzpabost poliziak jipoi eman ziotela bere ziegan atxilotutako bati, gauean. Beste une batean, berak jaso zuen agente batzuen bisita ziegan. Bada, galdeketarik egiteko asmorik gabe, **boligrafo bat jarri zioten atzamarren artean**, gero eskua estutzeko. Sufrimendu handia eragin zion horrek. Aldaera bat: “**arkatzaren tortura**”. Presoari arkatz handi bat jartzea atzamarren artean eta presioa eragitea hatzarteko tolesetan.
- Eskuak buru gainean jartzera behartu zuten, zezenaren adarrak balira bezala, eta guardia zibilek **toreatu** egin zuten, Espainiako bandera erabiliz kapote modura.
- **Argi-foku indartsu** baten aurrean jarri zituzten, begiak ixteko aukerarik eman gabe.

- Leioa ireki, eta ertzean jarri zuten, hitz egin ezean **amildegitik behera botako zutela mehatxatuz**. “Aitortu, edo bota egingo zaitugu”. Beste pertsona bati, erai-kinaren laugarren solairuan egonik, **leihotik botatzeko keinua** egin zioten, gorputzaren erdia baino gehiago atera baitzioten amildegira, bi agentek oinetatik heltzen ziotela. “Grimauri bezala” erortzen uztearekin egin zioten mehatxu, eta ohartarazi salto nahita egin zuela esango zutela gero.
- **Bi belarrien atzealdeko oinarria** makila batekin **presionatzea**, min jasanezina eraginez.
- Eskuburdinak lotuta egon ziren, gau eta egun, Guardia Zibilaren Antiguoko komandantziako “aroztegiaren” ondoan (Donostia), **zerra piztuta** zegoela, zarata handia eginez.
- Espetxeratutakoan, Donostiako Gobernu Zibilera eraman zuten berriro, **egunez galdeketa egin eta torturatzeko, eta, gauean, espetxera eraman zuten berriro**. Espetxean gose-greba egin behar izan zuten, lekualdaketak saihesteko.
- Lurrean etzatera behartu zuten, ahuspez, baldosa hotzen gainean, eta, jarrera horretan, **altzairuztatutako hagaxka batekin kolpatu zizkioten oinazpiak**.
- “**Erruleta**”: poliziek zirkulu bat osatzen dute, eta “astindu egiten zaituzte, polizia baten eskuetatik beste batenetara igaro zaitezten, irainak eta kolpeak jaso bitartean”.
- **Flexioak** egitea, guztiz nekatu arte.
- Izuak gaindituta, esfinterren kontrola galdu zuen (**gainean egin zituen txiza eta kaka**), eta horrek umiliazio-sentsazioa areagotu zion, polizien arteko txantxa-giroa ere handitzearekin batera. **Gau osoan, ez zioten komunera joaten utzi, garbitu zedin**, eta egunkariz estalitako aulki batean eserita egon behar izan zuen. “Umiliatuta sentitzen zara. Une horretan, ez zara pertsona”. Beste kasu batean, atxilotutako emakume batek kontatu du agente batek hitz egitea eskatzen ziola kolpeen artean: “Hitz egiteko! Zu bezalako ausart asko etorri dira hona, baina honaino iritsi dira! Ezer egin ez nuela esaten jarraitu nuen, eta hark katearekin mahaia kolpatzen jarraitzen zuen, oihuka, gorroto handiz begiraturuz... Izugarri beldurtu nintzen. Eta, hor, txiza ihes egiten hasi zitzaidan. **Katearekin ematen zuen kolpe bakoitzeko, txizak ihes egiten zidan...** Horrekin, guztiz hutseratu ninduen”.
- Kolpeak buruan mailu batekin, biri gutxienez.
- Eskuburdinak lotuta eta oinutsik, **egurrezko barra bat pasatu zuten belaunen eta ukondoan artetik**, eta, gero, bi mahairen artean bermatu zuten; hala, burua lurrera begira zegoen, eta oin-zolak gora begira. Jarrera hartan zegoela, behin eta berriro kolpatu zizkioten oin-zolak, gauza gogor batekin (adibidez, borra batekin). Negarra eta oihuak isilarazteko asmoz, galtzerdi bat sartu zioten ahora.
- Buru-berogarria kendu zioten, eta uniformedun guardia zibil baten aurrera eraman zuten; guardia zibilaren ondoan, kate batekin lotutako txakur bat zegoen. Distantzia gutxira, beste guardia zibil baten ondoan, bere neska-laguna zegoen, erdi biluzik, buru-berogarria atzekoz aurrera jarrita zuela. Hitz egin ezean txakurra bikotekidearen aurka xaxatzearekin mehatxatu zuten, baina ez zen gertatu. “Hitz egiten ez banuen **txakurra neska-lagunari botako ziotela egin zidaten mehatxu**”. Beste kasu batean, emakume batek honela bizi izan zuen: “Hiru edo lau gizon sartu ziren, kaleko jantzita (...), eta txakur handi bat zuten, zaunka ari zena. Soltatu egingo zutela esan zidaten. Beldurtzen hasi nintzen. Une batean, aske utzi

zuten, eta txakurra gainera etorri zitzaidan, zaunkaka; hortzekin, jertsea urratu zidan, baina ez zidan kosk egin. Bitartean, haiek: Hitz egin, hitz egin!”.

- Guardia Zibilarekin lankidetzan aritzeko eskaintzak, herriko paretetan pintadak eginez txibato hutsa zela zabalduko zuten mehatxupean.

3.7.1. Atxilotu osteko egoera

Polizia-etxeetatik eta kuarteleetatik igaro ondoren, honako egoera honetan geratu ziren Batzorde honen aurrean torturak eta tratu txarrak salatu dituzten 49 lagunak:

- Kargurik gabe aske: 14
- Kargurik gabe aske, isun batekin: 2
- Espetxera bidali zituzten: 19
- Espetxean denbora bat egin eta gero, kargurik gabe aske geratu ziren epaiketa-
ren ondoren: 4
- Epailearen esku utzi gabe espetxeratu zituzten, eta epaiketarik gabe aske
geratu ziren: 1
- “Ordena publikoa asaldatzeko ekintzetan parte hartzeagatik” espetxeratu zu-
ten, baina gero ez zen epaiketarik egin: 1
- Behin-behineko askatasunean: 5
- Behin-behineko askatasunean, baina ez zen epaiketarik egin, eta fidantza
itzuli zioten: 1
- 14 egun igaro zituen atxilotuta eta torturapean, baina Epaitegi Militarrek aske
utzi zuen, behin betiko eta erantzukizunik gabe, 1977a baino lehenagoko deli-
tuak leporatu zizkiotelako: 1
- Ez zuen epaiketarik izan, lehenago hil zutelako: 1

Adibide bat:

- “Familiaren baserria beste bi aldiz miatu zuen poliziak. Lehenengoan, ez zu-
ten ezer eraman, ezta inor ere; bigarrenean, J.R. anaiaren bila, eta, etxean
ez zegoenez, bere hiru anaiak baserriaren kanpoaldean galdekatu zituzten.
Kolperen bat jaso arren, ez zuten inor atxilotu. Familia poliziaren jomugan
egon zen maiz. Beste anai bat ere, sei hilabetez kartzelan egon ondoren,
etxera bidali zuten, kargurik gabe. Arreba ere kartzelatik pasatu zen, baina
bere kasua artxibatuta geratu zen gero”.

3.7.2. Mehatxuak eta jazarpen etengabea

Askotan, biktimek Batzorde honi esan diote atxiloketen eta polizia-etxeetan na-
hiz kuarteletan jasandako torturen ostean edozein motatako mehatxuak jaso zi-
tuztela etxean, heriotza-mehatxuak asko. Kasu batzuetan, mehatxuok denboran
luzatu ziren, eta senideengana iritsi.

Lekukotza

Bi aldiz atxilotu zuten, 1973an eta 1981ean; bada, gerora, hainbat urtez, bera
eta familia mehatxuen eta jazarpen etengabearen biktima izan ziren. Baiez-
tatu duenez, lehen aldiz atxilotu zutenean ez zuen antolakunde batean ere
militatzen. 1981ean, Herri Batasunako (HB) zinegotzia zen, Gipuzkoako uda-

lerrri batean. Kontatu digu jazarpen-testuinguru hartan sekulako nahigabea sentitu zuela amak eta arrebek kuartelaren aurretik igarotzean jasan zuten erasoaren harira: “Kalean jotzen zuten. Putaseme baten ama zara!”.

Etengabe mehatxupearan zegoelako sentipenaren ondorioz, laguntza eskatu behar izaten zuen lanera joaten zen aldiro. Halaber, badaezpada ere, autoa martxan jarri aurretik, egunero-egunero, autoaren azpiko aldea begiratze-ko ohitura hartu zuen. Alabak ibilgailu horretan ez eramatea erabaki zuen, edozein unetan bere aurka atentatua egin zezaketela uste zuelako. “Alabak ez nituen inoiz kotxez eramaten. Inoiz ere ez! Ni hil nahi banaute, hil nazatela, baina alabak ez”.

Bigarren aldiz atxilotu eta gero, Triple A taldearen jazarpen serioagoa pairatzen hasi zen. Enpresan nahiz etxeko atarian, baita etxeko atean ere, pintadak egin zizkioten, honelako mezuekin: “Putasemea, alde hemendik!”. Heriotza-mehatxua zekarten oharra eta telefono-deiak jaso zituen. Behin, bala-jaurtigaiak zituen eskutitz bat jaso zuen; hortaz, salaketa jartzea erabaki zuen, baina salaketa hark ez zuen inolako ibilbide judizialik egin. “Ez zuten ez ikertu, ez ezer egin. Zero”. Lau urteko jazarpenaren ostean, sentitzen zuen beldur etengabearen ondorioz, etxez aldatzea erabaki zuen.

3.7.3. Hil nahi izatea. Ezaugarri errepikakorra

Tortura nozitu duten askoren testigantzetan, bada askotan errepikatzen den sentimendu bat: une batean, “iruditzen zaizu heriotza dela jasaten ari zaren tormentu horren liberazioa, eta heriotza nahi izatera iristen zara, edo torturatzaileri eskatzera”. Horri buruzko adierazpen batzuk:

- “Hain zen egoera latza, ezen leihotik behera salto egitea pentsatu bainuen, galdketen gelako leihotik lorategietara, baina itxita egoten zen beti. Ezer sinatzeko prest ez nengoenez, hantxe hil nintzaten erregutzera iritsi nintzen”.
- Hain zegoen egoera txarrean, ezen akaba zezatela eskatu baitzien torturatzaileri: “Amaitu zuek; eman tiro bat, eta amaitu. Amaitu”.
- “Honekin amaitzeko, tiro bat botatzeko eskatu nien”.

3.7.4. Tortura, genero-ikuspegitik

Nazioarteko instantziek gomendatzen duten moduan, Batzordeak lan egin du giza eskubideei buruzko ikerketetan eta espedienteen izapidean genero-ikuspegia sartzeko, testuinguru sozial jakin batzuetan ezartzen diren askotariko diskriminazioak eta genero-indarkeria identifikatuko dituen analisi bat egin ahal izate aldera.

Emakumei buruz

Emakumeek, torturatzen dituztenean, generoa, sexu-joera edo genero-identitatea dela-eta, sexu-indarkeria pairatzeko arrisku espezifiko eta erantsia daukate. Era berean, Batzorde honen lanean baieztatu denez, polizia zain-tzapean dauden emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan ohikoak izaten dira emakumeak izatearekin lotutako abusuak; hala nola, bortxaketa-mehatxuak, ukituak eta irain sexistak.

Genero-ikuspegia torturaren aurkako nazioarteko borroka-esparruan sartzeari buruzko txosten espezifiko batean, Nazio Batuetako torturaren aurkako errelatore bereziak nabarmendu zuen oso garrantzitsua dela “torturatik babesteko es-

parrua aplikatzean genero-kontuak ez ahaztea, emakumeak hobeto babestu ahal izan daitezen torturaren aurrean (...)."

Horri buruz, jasotako testigantza batzuk ekarri ditugu hona:

- Biluztera behartu zuten, baita jarrera umiliagarrietan egotera eta irain sexualak entzutera ere. Antzu utziko zutela egin zioten mehatxu.
- Ukituak, begiradak eta komentario lizunak jasan behar izan zituen, mahaian etzanda babesgabe zegoela; sekulako umiliazioaz gainera, sentitu zuen ezin zuela ulertu funtzionario horiek nolatan egon zitezkeen horrelako ekintzak egiteko entrenatuta.
- Feminitateari eta janzkerari buruzko irainen artean gertatzen zen guztia. Behin eta berriz errepikatu zizkioten honelako esaldiak: "Mari-mutil halakoa", "puta", "ez zara emakumea", "ziztrina zara"... Ama ere iraindu zuten, familia ugaria edukitzeagatik: "Zure ama puta bat da. Hamalau seme-alaba edukitze-ko, puta bat da".

1. lekukotza

Biluztera eta berriro janztera behartu zuten. "Biluztu zaituz. Jantzi zaituz, zerri hori, zu ikusteak nazka ematen du-eta!". Galdeketetan, erdi biluzik egon zen ia denbora guztian. "Kuleroetan nengoen denbora guztian". Hilekoa zeukan, eta, konpresa bat eskatzean, gutxiespenez oihukatu zioten: "Zikin nazkagarriak! Guztiok etortzen zarete hona hilekoarekin zikintzera!". Ez du gogoratzen azkenean produktu higienikorik eman al zioten.

Oihu- eta izu-giro hartan, baginatik gauzak sartuko zizkiotela egin zioten mehatxu. "Etengabe mehatxatzen zintuzten, denetik sartuko zizutela esanez, pistola bat edo dena delakoa... Oihuak eta irainak etengabe, baina modu sexualean ukitu ez, hori ez". Biktima horren testigantzan jasotzen denez, torturatzailerik esan zioten hiesdun baten odolarekin zikindutako botila bat sartuko ziotela baginatik. Trufa artean, komentario eta galdera sexualak ere egin zizkioten. (...)

"Bainera" bi aldiz egin eta gero, bustita, aulki batean eseri zuten, soinean kuleroak eta mozorroa baino ez zituela. Orduan, berokia ekarri zioten, eta barre artean esan zioten ez zutela gaixotzerik nahi. Giro umiliagarri eta iraingarri hartan, galdeketarekin jarraitu zuten, baina, lehenik, agindu zioten gelara guardia zibil bat sartzen zen aldiro bularrak erakutsi behar zizkiola: "Badakizu; norbait sartu da, eta, beraz, aurrena titi bat erakutsi behar diozu, eta, gero, bestea". (...)

2. lekukotza

Aulki batean eserita eta ikusi ezinik zegoela, kolpeekin jarraitu zuten, eskuak zabal-zabal, buruan, bularrean, urdailean eta bizkarrean. Emakumea izatearekin lotutako lehenengo irainak entzun zituen, itxura fisikoari eta sexualari buruzkoak. Ezin zuenez ikusi, bost poliziak irudikatu zituen, burlaka. "Putakumea! Erakunde armatura sartzen zarete, ETako guztiakin larrua jotzeko", "Ze neska eskasa zaren, ez daukazu ez titirik, ez ipurdirik".

Zalaparta hartan, biluztera behartu zuten. Ezetz esan zenez, galdekatzaileetako batek indarrez kendu zion jertsea, eta kolpatu egin zuten, azkenik

gerritik gora biluzik geratu zen arte. Une hartan, **kikilduta, behea jota, abusatua eta**, batez ere, **babesgabe sentitu zen**. Hala ere, haserre-plantak egin eta negarrari eutsi ziola baieztatu du.

Esan zioten antzutzeko metodo sofistikatu bat zutela Frantziarekiko lankidetzari esker, lanpara berezi batek sortutako argi ultramore baten bidezkoa, eta ageriko lesiorik utzi gabe erreko zizkiotela obulutegiak. Ama biologikoa izan nahi zuenez, une hartan lur jota geratu zela baieztatu du:

“Beti nahi izan dut ama izan. Ama izango nintzen! Eta, jakina, hori esan zidatenean, lur jota geratu nintzen, behe-behean. Orduan, negarrez hasi nintzen”. Prakak askatu zizkioten, eta, kremlera jaitsi ondoren, zutik zegoela, oso bero handia igortzen zuen lanpara moduko bat pasatu zioten sabelaren beheko aldetik. Bere burua babesten saiatu zen, eskuak abdomenaren aurrean jarritz, baina ezin izan zuen, bi poliziak gorputzari eta besoei heltzen zietelako. “Bitartean, obulutegiak birrinduko zizkidatela esaten zidaten, bizi osorako utziko nindutela antzu.

“Praken eta azalaren artean plaka zeukala, burdinazko barauts moduko bat jarri zioten eskuan, ez oso lodia, eta mehatxatu egin zuten: ‘Begiratu hau; baginatik sartuko dizugu, eta bortxatu egingo zaitugu’”.

Metalezko plaka kendu ondoren, goitik behera biluztera derrigortu zuten. Uko egin zionez, polizietako batek bortizki kendu zizkion prakak. Lotsarazten saiatu ziren, honelako komentarioekin: “Ea, orain, kendu kulerok. Ez izan lotsarik; total, ez zara hemen biluztu dugun bakarra. Ea... Antolakundeko gizon guztiekin egin baduzu txortan, ez dizu lotsarik emango gure aurrean jartzeak!”. Erabat biluzik, mahai batean etzanarazi zuten, ahuspez, oinak mahaitik kanpo, hiru agentek burutik, gerritik eta hanketatik heltzen ziotela, mugitu ez zedin. Jarrera hartan zegoela, oin-zolak kolpatu zizkioten bere zapatekin: “Ez da sekulako mina, baina oinak handitzen hasten dira, eta inurridura sentitzen hasten zara; ez duzu oin-zola ez ezer sentitzen. Oihuka hasi nintzenez, eskua ahoan jarri zidaten, eta ezin nuen garrasi egin. Beste batean, titiburua heldu zidan, eta atximur egin, oinetan zegoenak jotzen jarraitzen ninduen bitartean”.

Gero, agente guztiek alde egin zuten gelatik, guztiek batek izan ezik. Hark, adiskidetzeko tonuan, mahaietan esertzeko agindu zion, eta aurrean jarri zitzaion, belaunak ukituz. Atxilotuak biluzik eta begiak estalita jarraitzen zuen, eta baieztatu du egoera hartan oso urduri jarri zela. Poliziak jantzeko agindu zion, baina, arropa guztia batera eman ordez, gutxika-gutxika eman zion, eta, jantzi bat ematen zion bakoitzean, ukitu egiten zuen.

3. lekukotza

Ukituak egin zizkioten, eta, gainera, hilekoarekin egon arren, jarrera umiliagarrietan biluzik egonarazi zuten, odola hanketatik behera lurrera zerriola. Ez du objektua zehaztu, baina adierazi du, une hartan, **alutik zerbait sartu ziotela**.

Nahiz eta zazpi aldiz atxilotu, ez zuen inoiz kondenarik jaso; halere, atxiloteta **gehienetan egin zizkioten sexu-erasoak**. Batzuetan, gainera, hiru hilabete eskas igaro ziren atxiloteten artean (sekulako intentsitatea eta presioa jasan zituen).

4. lekukotza

Agenteak, ustez atsegin, tormentu hartatik libratuko zuela esan zion, baldin eta gela batera laguntzen bazion. Atxilotuaren esanetan, gela hura liburute-gi moduko bat zen, baldak baitzituen. Han zeudela, agenteak, tonu itxuraz “adiskidetsua” erabiliz, informazio bat ematea eskatu zion, baina emakumeak behin eta berriro esan zion ez zekiela ezer horri buruz. “Baineratik” libratu izanak beste edozeinen begietara galdeketa-itxura eduki behar zuelako aitzakiarekin, guztiz biluztea agindu zion: “Baineratik libratzeko ekarri zaitut hona, baina biluztu egin behar duzu”. Hasiera batean, uko egin zion; horrek, baina, agentea haserrarazi zuen, eta, hitzen tonua bat-batean aldatu zuenez eta berriro ere bainerara eramatearekin egin zionez mehatxu, gazteak men egin zion eskaerari. Egoera hartan, flexioak egin behar izan zituen, eta jarrera umiliagarrietan jarri, agenteak, erdi ezkutaturik, apalategien atzetik begiratzen zion bitartean.

Gizonei buruz

Hona hemen adibide batzuk:

- “Kirofanoan”, barrabilak kolpatu zizkieten erregela batekin, irainen, gizontasunari buruzko laidoen eta antzu uzteko mehatxuen artean.
- Arreba edo bikotekidea atxilotu eta bortxatzearekin egin zioten mehatxu.
- Aizkora bat erakutsi, eta esan zioten: “Pitilina moztuko dizugu, eta txakurrei emango diegu, jan dezaten”. Gero, exekuzio-simulakro bat egin zioten.
- Biluztu egin zuten, edonolako laidoen, umiliazioen eta irainen artean eta zakila borra batekin kolpatu bitartean. Bi preso komun homosexualekin batera ziega batera eramango zutela esan zioten, eta bortxatu egingo zutela. Halaber, hone-lako mehatxuak jaso zituen: “Zure neska-lagunari hau eta hau egingo diogu...”.

Lekukotza

“Bulego batera eraman ninduten. Hitz egiten ari nintzen, eta erratzaren makila batekin etorri ziren. Bat-batean, arropa jaitsi zidaten, eta ja... (hitzik gabe geratu da, eta keinu bat egin du eskuekin, amaiera eta nahasmendua adierazteko bezala). Hor, lehertu egin nintzen. Nire buruarengandik urrundut nintzen, ez galdetu zergatik. Ez daukat ideiarik ere. Erratzaren makila uzkitik sartu zidaten (ahotsa beheratu du, eta zailtasunez mintzo da). Izugarria da! Hor, mentalki hautsi ninduten; hor, kaka zaharra zarela sentitzen duzu (amorruez). Hor, hil izan banintz, ba gustura. Behea jo nuen. Ez dakit konortea galdu nuen, bizitza galdu nuen ala ni neu galdu nintzen (ahotsik gabe geratu da, eta hunkituta egin du hasperen).

(...) Gogorra da; kontatu dudan lehen aldia da hau (hasperen egin du, eta are gehiago beheratu du ahotsa). Barruan daramatzazun gauzak dira; ez dituzu kontatzen, berriro bizitzen dituzu. Gero, beste batzuei entzuten diezu gauza bera gertatu zaiela, batez ere neskei... Nola egon liteke hainbeste basapizti? **Han egon ginen guztioi egin ziguten, baina bakarrak kontatu du.** (...) Nahi zutena atera ezin zigutenez, ba bizi osorako sunsituko dugu, eta uste dut han behean geunden guztiokin egin zutela. Gero, espetxean ikusi genuen elkar... (hasperen). Uste dut han guztiok hil gintuztela pixka bat (...).

33.7.5. Atxiloketa arbitrarioak eta babesgabetasuna

Salbuespen-egoeretan eta Terrorismoaren aurkako Legearekin, atxiloketa arbitrarioak hainbat egunez luza zitezkeen, inolako arrazoirik gabe. Bestetik, bilatzen ari ziren pertsona aurkitzen ez zutenean arbitrarioki atxilotzen zituzten senideen kasuak nabarmentzen dira. Hona hemen adibide batzuk:

- **“Ataunen:** Bi *tanketa* eta beste bi *patrol* gelditu ziren etxe atarian. Zazpiak aldera ziren, etxeko guztiok esna, aita, ama, eta anai zaharrena ukuiluan behiak jezten. Etxe barrura sartu, eta baserriko toki banatan zabaldu ziren guztiak, sukaldean bildu gintuzten arte. Anaia batengatik galdetu zuten, bera eraman behar zutelako. Ez ziguten esan zergatik. Gero, beste anaia ere eraman behar zutela erabaki zuten, baina ez zuen ematen bere bila etorri zirenik. Azkenean, niri ere prestatzeko esan zidaten, **‘así aprovechamos el viaje’**. Irten aurretik, hankaz gora jarri zuten dena, goiak eta beheak miatuaz. Ez zuten ezer eraman”.
- **“Legorretan:** 1975eko urria. Amaren deia jaso zuen, eta esan zion Guardia Zibila etxean agertu zela, bi anaien bila, eta, **etxean aurkitu ez zituztenez, agenteek aita Ordiziako kuartelera atxilo eramatea erabaki zutela**. Aitari poltsa egin zioten, eta semeetako batek ikusi egin zuen, gauza bera egitera eraman zutenean. **Biak kargurik gabe atera ziren kuarteletik”**.
- **Tolosan.** 1975eko azaroa. Guardia Zibila, Zaldibian egiten ari zen sarekadaren esparruan, berriro agertu zen etxean. Oraingoan, arrebaren bila zebiltzan. Emakumea etxean ez zegoela egiaztatu ondoren, **bera atxilotzea erabaki zuten**. Kuartelean, “bainera” egin zioten. (...) Aske geratu zen, familiako kide bat arreba agertu arte kuartelean atxikita geratzeko baldintzarekin. Lehenik, **aita eraman zuten**. Tratu txarrak eman zizkiotela jakin zuenean, kuartelera itzuli zen, aske utz zezaten, eta **bera geratu zen** han, berriro. Orduan, **beste anaiek ere handik pasatu behar zutela** esan zioten, eta halaxe izan zen. Azaroaren 19ko goizaldean, kuarteleko eskailera baten barandara lotuta zegoela, lehen orduan, Francoren heriotzaren albisteak entzun ahal izan zuen. Goizeko lehen orduan, **kargurik gabe aske geratu zen, eta ez zuen beste senide batek joan behar izan**.

Babesgabetasunaren beste adibide bat:

Donostiako Gobernu Zibilaren egoitzan ordu amaigabeak igaro ondoren, Valentziako polizia-etxera eraman zuten, eta, han, atxilotuta egon zen, 72 orduak bete arte. Valentziako hiriburura iritsi zenean, hain egoera kas-karrean zegoen, ezen mediku batek begiratu zezan agindu baitzuen komisario buruak. Azterketa egin eta gero, medikuak pomada-tutu bat utzi zion, egunean hiru aldiz emateko. Polizia buruak akta bat idaztea agindu zuen, bertan jaso zedin atxilotua egoera hartan iritsi zela Valentziara.

Etxea miatzean, poliziak 16.000 pezeta bereganatu zituen, baita idazmakina berri bat ere, nahiko garestia; ez zuen inoiz berreskuratu.

Epailaren esku jarri zutenean, torturapean deklaratu zuela alegatu zuen, baina **Valentzian lesioei buruz idatzi zen akta ez zioten inoiz aurkeztu epailari**. “Badakit torturatu egin zutela, nik ikusi nuelako”, kontatu du bikotekideak. “Behatsetako azazkalak erauzi zizkioten; hankak ubelduraz josita zituen, borrekin emandako kolpeen ondorioz, eta, beraz, ia-ia ezin zen ibili ere egin”. Espetxealdiak ere ondorioak utzi zizkion... (...).

3.7.6. Armak beldurrarazteko erabiltzea

Batzorde honi hainbat kasuren berri eman zaio, non agenteek armak erabili baitzituzten atxilotua beldurrarazteko; baita exekuzioak simulatuz ere, hainbat modutan:

- “Polizia batek pistola bat atera zuen; danborrari bueltak eman zizkion, eta buruan jarri zidan, esanez: ‘hitz egin, edo hil egingo zaitut’. Isilaldi baten ondoren, ‘klask’, tiro baten zarata entzun zen”.
- Guardia zibil batek pistola bat jarri zion buruan, exekuzio-simulakro batean. Hainbeste ari zen sufritzen, ezen esan baitzion: “Ba egin tiro, eta amai dezagun hau”.
- Momentu batean, ahoa irekitzeko eskatuta, fusilaren kanoia bertan sartu zioten. “Hementxe bertan hilko zaitugu; ireki ahoa. Hitz egiten ez baduzu, tiro egingo dizugu”. Atxilotuak kartzelatik atera berria zela esan zien, eta ezer ez zekiela. “Egiozu tiro”, berriz kanoia ahoan sartu baitzioten...
- Galdetu zioten: “Badakizu otoitz egiten? Ba hasi”. Eta erantzun zien: “Zergatik egin behar dut otoitz?”. Orduan, polizietako batek arma atera zuen, eta kopetan jarri zion, esanez: “Hasi orain”.
- Beldurrarazteko asmoz, tiro egitearekin mehatxatzen hasi ziren, metraileta burura apuntatzen ziotela, Salben.

3.7.7. Ez dago salaketa judizialik, errepresalien beldur zirelako

Batzordean lekukotza eman duten atxilotu gehienek ez zuten salaketarik jarri nahi izan, “errepresalien beldur zirelako”, hala eginez gero “berriro jardutearekin” edo polizia-etxera edo kuartelera itzultzearekin egin baitzieten mehatxu. Zenbaitetan, epaileak berak seinالاتu zituen ate ondoan, uniformeak jantzita, deklarazioa entzuten ari zirenak.

- Bosgarren egunean, epailearen esku utzi zuten, Tolosan. Gogoan du epaileak berak galdetu ziola ea torturatu zuten, baina ez du gogoratzen zer erantzun zuen, nahiz eta oso jakitun izan bere egoera fisikoa oso argigarria zela. Epaia erabakiaren zain ordubete egon eta gero, karguekin aske geratu zen.
- Babesgabe sentitu zen, epailea aurrean zela, **forentseak** lesiorik ez zuela baieztatatu zuenean, nahiz eta agerikoak izan. Horregatik ez zituen salatu tratatu txarrak.

Beste lekukotza bat; kasu honetan, salaketarekin:

1976ko ekaina. Lanaldia amaitu ondoren, J.M.-k ibilgailua hartu zuen, etxera itzultzeko, Villabonara. Egun hartan, ikasle bat zeraman bidaide; Hernanin utzi behar zuen, han bizi zelako. Galarreta frontoiaren parera iritsi zirenean, geratzeko agindu zieten Polizia Armatuaren kontrol batean. Bidaiari guztiak eta ibilgailua miatu zituzten, xehe.

Miaketaren ondoren, Donostiako polizia-etxera eramane zituzten biak ala biak. Bigarren galdeketa, zutik egonarazi zuten, bi eskuetako atzamar bana paretan bermatuta eta oinak paretatik metro eta erdira baino urrunagora; deseroso eta akituta egoteagatik jarrera aldatzen zuen aldiro, beisbol-bate batekin kolpatzen zuten. Gainera, belauniko egonarazi zuten, besoak gurutze-forman jarrita eta hankak elkarrengandik bananduta, zaplazteko gogorak, beisbol-batearekin ipurmasailetan kolpeak eta urdai-

lean eta barrabiletan ostikoak eman bitartean. Tratu txar fisiko haiekin batera, heriotza-mehatxuak egin zizkioten, eta behartu egin zuten.

Kargurik gabe askatu zuten. “Oinak lurrean ezin jarrita atera nintzen polizia-etxeko atetik, eta hantxe zeuden nire neska-laguna eta ama. Horrela ikusita, negarrez hasi ziren. Nik animatu nituen. Barru-barruan, irabazi egin duzulako sentsazioa daukazu”.

Aske utzi eta ordu gutxi batzuetara, lesioen argazkiak atera zizkioten, eta, hematomen deskribapena jasotzen zuten ziurtagiri mediko ofizialak lortu zituenean, salaketa judiziala jarri zuen. Donostiako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegian, aurretiko eginbideak hasi zituzten; gero, sumario bihurtu ziren. Halere, Amnistiari buruzko urriaren 15eko 46/1977 Legeak amaiera eman zion prozesu judizial hari, baita justizia eskuratzeko nahiari ere.

3.8. Biktimei sufrimendua eragiten dieten bestelako ekintzak eta omisioak

3.8.1. Birbiktimizatzen duten jarrerak

Hemen azaldutako tortura-ekintzek inolako zigorrik jaso ez izanaren erantzukizuna ez da zuzeneko torturatzailleena bakarrik, baita lege-, mediku- eta epai-katean erantzukizuneko karguak edukita isildu eta beste aldera begiratu dutenena ere. Kate hori luzea da, eta, honako adibide hauetan, katearen inplikazioa ikus daiteke:

- Indautxuko polizia-etxean egon bitartean, forentsea zela esan zion pertsona batek bisitatu zuen; mediku-azterketa egin zion, eta “**nondik erori zen**” galde-tu. Atxilotuak isilune luze batekin erantzun zion, azterketa egiteko erabili zuten gelan polizia armatu bat zegoelako. Bisita haren ondoren, *Tantum* pomada eman zioten kolpeetarako. Egun haietan, ez zuen abokatuaren laguntzarik jaso.
- Hiru egun atxilo igaro eta gero, epailearen esku utzi zuten, baina ez zuen bere deklarazioa berretsi haren aurrean. “Hiru aldiz esan nion **epaileari** deklarazio poliziala ez zela egia, eta esan zidaten: ‘Hori esan duzu dagoeneko; beraz, ale, zoaz Jainkoarekin’. Gogoan du **fiskalaren** hitzak honako hauek izan zirela: “Beno, badakigu polizia-etxetik pasatzea ez dela atsegina”.
- **Epaileari** tratu txarrak adierazi zizkionean, hark garrantzia kentzeko adierazpenak egin zituen: “Ez da ezer” edo “ez du baliorik”. Juan Mari Bandrés izan zuen abokatu. Epaiketarik ez zen izan, eta fidantza itzuli zioten.
- **Epaileak** mehatxu egin zion, kuartelean sinatutakoa berretsi ezean berriro ere Guardia Zibilaren esku utziko zuela esanez. Epaileak ez zuen ikusi nahi nola zeukan gorputza: “Ez daukat inolako interesik”. **Forentsea** ez zegoen epaitegian, futbol-partida batean zegoelako. Gero, espexera ere ez zen agertu. **Espetxeko medikuak** esan zio “giza eskubideak eta potroak eseki zitzala”. Aztertu nahi ez izateaz gainera, ez zion inolako tratamendurik eman (pomadarik edo linimenturik); biktima hilabete egon zen mugitzeko zailtasun handiekin. **Kapitain militarrek** salaketa jaso zuen, baina kentzeko iradoki zion: Guardia Zibilaren kontrako kalumniengatik eta Guardia Zibilaren izena zikintzeagatik salatzearekin mehatxatu zuen.
- Atxilotu eta hamar egunera, **epailearen** aurrera eramane zuten, eta hark, atxilotuaren egoera tamalgarriarekin harrিতuta, galdetu zion: “Baina zer egin dizute, neskatxa?” Biktimak gogoan du jo egin zutela esan ziola, eta hark erantzun

zuen: “Ados, ados”. Gero, kargurik gabe aske utzi zuen. Epaileak, baina, ez zuen ofizioz jardun ageriko delitu haren kontra. Kanean zela, kolpatua, ubeldua eta mindua, herriko **familia-medikuarengana** joan zen. Medikua zur eta lur geratu zen haren egoera ikusita, eta lesio bat diagnostikatu zion saihetsetan; ondorioz, denbora batez mugitu ezinik egon zen.

- Epailearen aurrera eraman aurretik, dutxatzen utzi zioten, eta arropa garbia eman, esatearekin batera hobe zuela gertatutakoari buruz hitz erdirik ere ez esatea, bestela ondorioak izango zituelako. Esandakoari jaramonik egin gabe, torturatu egin zutela kontatu zion **epaileari**. Alabaina, epaileak ez zuen erantzun.

3.8.2. Familia osoa hartzen duten sufrimenduak

Biktima askorentzat, sufrimendua ez zen bukatu gertakariak salatuta. Gerora, atxiloketak, deportazioak, atentatuak, sendatzeko urte luzeak... bizi izan dituzte, eta horrek bizitza baldintzatu die senideei.

- Shockean egon ziren, eta asko kostatu zitzairen galera onartzea. Orain uste dute garai hartan laguntza psikologikoa jaso izanak asko lagunduko ziekeela (...) Denborarekin, gutxi gorabehera guztiak joan ziren normalizatzen, gazteena kenduta, **bere buruaz beste** egin baitzuen”.
- Gertaera haiek guztiek min handia eragin zioten familiari. Amak, emakume gazte eta alaia izan arren, umorea galdu zuen, eta, ama zoragarria izaten jarraitu bazuen ere, sufrimendu handi batekin bizi behar izan zuen: buru eta bihotz aritu zen, senarra bezalaxe, seme gaixoa zaintzen.
- Familia espetxera bisitan joan zenean, funtzionario batek euskaraz hitz egiten entzun zituen aita-emeak. Hantxe bukatu zen bisita.
- Polizia oldarka sartu zen etxera, eta goitik behera miatu zuten. Baserriko ukui-lura eraman zuten, eta paretaren aurka jarri, armekin apuntatu bitartean, fusilatu egingo zutela mehatxatuz. Luze iraun zuen jarrera hartan. Kontatu duenez, une batean “alaba txikia” ikusi zuen, “txupetea ahoan, ukuiluko atean, niri begira”. Elkarrizketan, zenbait aldiz gogoratu du alaba txikiak hainbat urtez izan zituela hitz egiteko arazoak.

3.9. Biktimek eskatzen dutena

3.9.1. Egia, gertatutakoa ofizialki aitortzea

Biktima gehienek edo beren senideek bat egiten dute egitarako eskubidea eta bizitako gertakarien aitortza ofiziala eskatzean, gertaerok errepikatu ez daitezkeen. Gainera, gertaerok publikoki jaso eta arloan espezializatuta dauden erakunde publikoetan gorde daitezela eskatzen dute, edozein herritarrek kontsultatu ahal izan ditzan.

- Familiak asko eskertu du Batzorde honek entzun izana eta gurasoek bizitza galdu zuteneko tragediaz hitz egin ahal izatea.
- Uste dute garrantzitsua dela beren testigantza jasota geratzea, belaunaldi berriek errealitate honen berri eduki ahal izan dezaten.
- “Bizitako guztia ez dadila ahanzturan geratu eta ez dadila berriro gertatu”.
- “Helburuetako bat da Euskal Herriak izan duen gatazkan gertatutako gorabehera guztien konstantzia geratzea”.

- Uste osoa duenez testigantzarik ez egoteak galarazi egiten duela gertatutakoaren errealitatea ezagutzea, lekukotza eman nahi izan du Batzorde honen aurrean, jasota gera dadin, “egia jakin dadin eta jendeak jakin dezan Estatuak ere isilpeko indarkeria ezarri zuela”.
- “Egia osoa jakin dadila”. Deklarazioan, biktimak nabarmendu du, urte asko igaro badira ere, beretzat oso garrantzitsua dela benetan gertatu zena jakitea, ez baita-ki nork egin zion tiro. Eragindako kaltea eta jasandako ondorioak aitortzea nahi du. “Uste dut jasota geratu behar duela zer gertatu zitzaidan, baita jazoera hark bizitza osorako zer ondorio utzi zizkidan ere, eta, batez ere, ahal bada, gertatutakoaren erantzuleak nor izan ziren zehaztu ahal izatea gustatuko litzaidake”.
- Familiak ahalegin handia egin du gertatutakoaren egia jakin eta aitortu dadin. Ez du nahi anaiaren heriotza bidegabea ahanzturan geratzerik, 47 urteren ondoren. Instantzia judizialek behin eta berriro ukatu dien egia behar du. Espediente honetan aurkeztu duten dokumentazioa Gogora institutuan artxibatzea eta aske kontsultatu ahal izatea nahi dute, momentuz egia hedatu ahal izateko beste bide bat dela uste dutelako.
- Berandu bada ere, dagoeneko ez baitago gurekin, nebak eta familia osoak bizitako bidegabekeria zati batean erreparatu nahi dute anai-arrebek, memoria- ren garrantzian sinesten dutelako: historiak benetan gertatu zena jasotzea nahi dute.
- Gaur egun, justizia nahi luke, eta pertsona haiek atxilotuak izatea. Hori ezinezkoa dela jakitun, Batzorde honi egindako eskaeraren bidez, egia zabaltzea nahiko luke, horrelakorik errepikatu ez dadin inoiz eta atxilotuen eskubideak kontuan har daitezzen.
- Eskaera zehatzetan, hainbat biktimak bat egin dute eskatzean etxetik eraman zutena itzul diezaietela; hala nola: “inoiz itzuli ez zituzten liburu-kutxak”, “etxetik hartu zizkidaden 5.000 pezetak itzul diezazkidadela” (beste kasu batean, 16.000 pezeta dira, inoiz itzuli ez dituztenak), “ikurrina brodatua, atzealdean bere historia jasotzen duena”, eskutitz pertsonalak, familiaren eta lagunen argazkiak, “idazmakina berria”...

3.9.2. Aitortza eta kalte-ordaina

- Orain arte ezezkoak jaso baditu ere, I.E.O.-ren familiak nahi du, batetik, haren hilketaren ekintza terrorista izan zela aitortu dadila eta, bestetik, egunen batean biktimatzat jo ditzatela, ikusezin egin zuten eta, beraz, inoiz aitortu ez den gertaera baten biktimatzat.
- Batzordeari egindako eskaerarekin, garai hartan manifestazio batera joateagatik edo, langileen eskubideak defendatze aldera, komitearen bileretara joateagatik bakarrik ezartzen ziren tratatu txarren berri eman nahi du, eta guztia jasota gera dadila. Benetan uste du gauzak beste modu batean egin daitezkeela, tratatu basati hura eman gabe eta atxilotuak pertsona-kondizioa galtzeraino umiliatu gabe.
- J.M.-k Batzorde honi eskatu dio ezagutu dadila eta ahaztu ez dadila musu-truk **diktadura frankista amaiazten lagundu** nahi izan zuen jende askok nozitutako egoera larria. Borroka hura eta borrokaren ondorioak jasota geratzea nahi du. Uste du norbaitek **aitortu beharko lukeela tratatu bidegabea eman ziotela eta egindakoa gaizki egon zela**. Halaber, injustizia sentitzen du, bizitako gertaerak zigorgabe geratu zirelako.

- Batzorde honi adierazi dionez, berak nahi duena da torturatu zutenek edo botereguneetatik tortura sustatu zutenek jendaurrean aitor dezatela zer egin zuten. Aitorpen hori, berez, nahikoa erreparatzailea izango litzateke, nahiz eta justiziarik egin ez. Uste osoa dauka egia aitortzeak asko lagundu dezakeela tortura nozitu izana baieztatzen dutenak (bera, adibidez) **gezurtizat jo ez ditzaten**.

3.9.3. Bidegabekeria konparatiboak amai daitezela

Iritzi batzuk:

- Torturaren biktimei eta beste biktima batzuei ematen zaien tratu desberdina amaitzea nahi du.
- Atsekabetuta daude agintariak gertakaria ahaztu zutelako, eta orain, Batzorde honi egindako eskaerarekin, hain gertakari larriengatik eragindako kaltea instituzionalki aitortzeko bide bakarra baliozkotzea nahi dute, biktimatzat har ditzatela, jasadako sufrimendua nolabait konpentsatzeko. “40 urteren ondoren geu ere biktima gisa aitor gaitzaten erregutzea eta sufrimendu hori guztia nolabait konpentsatu ahal izatea”. Gustatuko litzaike ebatzi gabeko atentatu terroristak argitzea eskatzen den irmotasun berarekin eska dakiola Eusko Jaurlaritzari polizia-indarkeriaren biktimei buruzko kasuak argitzea, zigorgabe jarraitzen dutelako.
- Batzorde honi egindako eskaerarekin, biktima honek egia eskuratzen lagundu nahi du: jakin dadila Euskal Herrian tortura sistematikoa izan dela, eta legea biktima guztientzat berdina izan dadila, zentzu guztietan.
- Simetria nahi dute Estatuak terrorismoaren biktimei eta haien senideei egiten dien aitortzarekin, kalte-ordainei eta lan edo laguntza psikologikoagatik laguntzei dagokienez, adibidez, haiek ez dutelako inoiz horrelakorik jaso. Bidegabetzat jotzen dute desberdintasun hori, beren mina eta sufrimendua beste biktima horienaren simetrikoak direlako.

3.9.4. Justizia errestitutiboari buruz

- Kexu dira, justizia errestitutiboa, oraingoz, norabide jakin batean bakarrik aplikatzen delako, kasu zehatz batzuetan bakarrik. “Delituok preskribatu badira ere, inor ez zaigu etorri esatera ba bai, egun hartan oker bat izan genuen. Inor ez! Ez dakit... Justizia errestitutiboaz hitz egiten dugu, baietz, presoekin egon direla, baina non daude beren egunean... egin zuten poliziak? Joe! Izan ere, ezin daiteke justizia errestitutiboa egin haiekin ere? Hau da, poliziak ager daitezela, eta, beno, aizu, hau gertatu zen bere egunean, dena delakoa... Ez dut inor ikusi etortzen eta...”.

3.9.5. Erantzukizun politikoari eta birbiktimizazioari buruz

- Familiaren asmoa da erantzukizun politikoa aitor dadila aitaren kontrako atentatuan, baita beste askoren kontrako atentatuetan ere, diru publikoarekin ordaintzen ziren eta Estatuak zuzentzen zituen mertzenarioek gauzatzen baitzituzten. Atentatua egin zutenak agindu-emaileen tresna hutsak zirela uste dute. (...) Badakite guztiaren erantzule politikoek, aske egoteaz gainera, zigorgabetasunaz eta nolabaiteko prestigio sozialaz gozatzen dutela, komunikabideek erreferente bihurtzen baitituzte, eragin duten mina kontuan hartu gabe. Horrek birbiktimizatu egiten dituela sentitzen dute.
- Familiak uste du Espainiar Estatua oraindik ez dagoela prest erabilitako indarkeriaren inguruan erantzukizunak onartzeko. Hala ere, uste du garrantzitsua

dela Batzorde honek antzeko kasuekin lotutako pertsonen zuzeneko testigantzak biltzea eta etorkizunerako gordetzea. Orain arte aitortu ez diren beste sufrimendu horiei arreta ematea nahi dute; izan ere, igarotako denbora dela-eta, berehalakoan egiten ez bada, ezin izango da inoiz egin.

3.9.6. Torturarekin lotutakoak

Jasotako eskaeren eta iritzien lagin bat:

- Tortura erabili izan dela aitortzea nahi du, baina ez jende askok uste duen eta saltzen den bezala (hilketak saihesteko). Zigorgabetasunak mintzen du, eta aitortza nahi du, torturak salatzen dituzten pertsonak **gezurtizat jo ez dituzten**. Tortura ukatzen dutenek tortura erabili izan dela jakitea nahi du.
- “Uste dut neurriak hartu beharko liratekeela, tortura zigorrik gabe gera ez dadin. Inkomunikazioa deuseztatzeak eta galdeketetan abokatuak egoteak tortura prebenitzen lagunduko luke. Bainera egin zidaten unea inoiz bizitako txarrena izan zen. Oroitzapen hori bazter utzi badut ere, ezin izango dut inoiz ahaztu”.
- “Onartu dadin tortura izan dela testuinguru honetan, eta torturatzailerei egiten utzi zaiela. Nire kasuan, gainera, gehienetan ez bezala, epaile militar batek aginduta, bere lesioen konstantzia idatzia dago. Hainbatetan argudiatzen den froga ezaren zirkunstantzia ez da nire kasuan ematen. Nahi dut torturaren aukera ezinezko bihur dadin, behin betikoz”.
- Uste du torturaren biktima asko (bera bezala) ez direla gaurdaino aitortu eta erreparatu. Biktima askok apenas hitz egin dute kontu honi buruz, bi alderdi dauzkalako: “Min eman dizute, eta, bestetik, lotsatu egiten zara, baita kontatzeaz ere”. Amaitzeko, torturaren biktimei eta beste biktima batzuei ematen zaien tratu desberdina amaitzea nahi du.
- Tortura sistematikoa izan dela jakin dadila eta legea biktima guztientzat zentzu guztietan berdina izan dadila. Halaber, ziegak zaintzen zituzten poliziek errealitate hartaz hitz egitea gustatuko litzaioke; izan ere, nahiz eta torturaren egile materialak izan ez, gertakari beldurgarri haien lekuko izan ziren.
- Bere kasuan, gehienetan ez bezala, epaile militar batek aginduta, bere lesioen konstantzia idatzia dago. Hainbatetan argudiatzen den froga ezaren zirkunstantzia ez da bere kasuan ematen. Biktimak nahi du torturaren aukera ezinezko bihur dadin, behin betikoz.

4. Auzitegiko psikologiaren eta medikuntzaren ikuspegia:

4.1 Auzitegiko peritu psikologiko eta medikuek aztertu eta ebatzitako kasuen zerrenda kuantitatibo eta kualitatiboa

Kasuak, guztira: 64 kasu, honela banatuta: 6 lehenengo aldi berezian (LAB); 42 bigarren aldi berezian (BAB), eta 16 ohiko aldian (OA).

Giza eskubideen urraketa motaren arabera:

LAB:

- Torturen/tratu txarren 4 kasu.
- Suzko armek eragindako zaurien bi kasu: bata hil egin zen, eta bestea zauritu.

BAB:

- Torturen/tratu txarren 38 kasu.
- Suzko armek eragindako zaurien lau kasu: hiru hil egin ziren, eta bestea zauritu.

OA:

- Torturen/tratu txarren 5 kasu.
- Suzko armek eragindako zaurien bost kasu: hiru hil egin ziren, eta bi zauritu.
- Bahitu, torturatu eta suzko armak eragindako zauriengatik hildako bat.
- Bortxatu, torturatu eta hildako bat.
- Poliziak manifestazioan emandako jipoiekin lesio larriak izandako bi kasu.
- Talde parapolizialen jipoia jasandako kasu bat.
- Gomazko pilota batek zauritutako kasu bat.

Lesioen bi kasutan, ondorioek puntuazio altua izan dute.

Kasu batean, ondoz ondo, honako hauek gertatu ziren: bahiketa, tratu txarrak/tortura eta suzko armak eragindako zaurien ondoriozko heriotza. Hortaz, zenbait ataletan agertzen da. *Idem* bortxaketaren eta heriotzaren kasuan.

Ondoriordunak:

- 19 kasuk ondorio fisikoak (6 suzko armek eragindako zaurien ostean).
- 32 kasuk ondorio psikikoak.

Bi kasutan, ondorioek puntuazio altuak izan dituzte; bata ondorio psikofisikoengatik, eta besteak trauma osteko estresaren nahasmendu gorenagatik. Perituen taldearen eta Batzordearen osoko bilkuraren ustez, ondorio psikiko guztiek merezi dituzte 5 puntu, trauma osteko estresaren nahasmendu ez-iraunkorragatik, pertsonen bizi-tzan luzaroan iraun zuelako eta, aldi horretan, asko asalatu zituelako (24 kasu).

Kasu batean, ondorio arinak izan zituen tiroa egon zen, eta, gero, atxilotu zutenean, tratu txar arinak eman zizkioten.

13 kasutan, ondorio fisiko eta psikikoak egon ziren.

Aldi honetan, suzko arma batek eragindako zauriengatik hildako baten gorpuzkiak desobiratu ditugu; oso kasu nekeza izan da, eta argi utzi du zer gaitasun daukan Batzordeak baliabideak eta pertsonak koordinatzeko.

4.2 Auzitegiko perituen balorazioa aldatzeko proposamena

Perituen taldean eta Balorazio Batzordearen osoko bilkuran, nolabaiteko nahigabe kronikoa dago, Batzordean biktima gisa aitortutakoentzako kalte-ordainen balioespena dela-eta.

Arazo horrekin lotuta, 2022an, peritu-balorazio honek zenbait peritu-txosten itxi zituen:

“Balorazio Batzordeak, perituen taldeak hala proposatuta, aho batez erabaki du biktimentzako kalte-ordainak zehazteko irizpide bat finkatzea, 12/2016 Legearen xede diren biktimei aitortza eta erreparazioa duintze aldera, trauma osteko estresaren nahasmenduaren mailan ondorio psiko(pato)logiko handiak eduki dituztenei dagokienez. Izan ere, nahiz eta ondoriook ez dieten garapen pertsonala behin betiko mugatu, egiaztatu egin dugu ondoriook luzaroan eragotzi dutela garapen hori, eten-gabe, maila desberdinetan, urraketa jasan zutenetik hasita.

Kasu horiek, baliaezintasuna eragin duten kasu larrien banakako balorazioa bazter utzita, 30/2015 Legearen baremo medikoarekin analogia eginez baloratuko dira, trauma osteko estresaren nahasmenduaren ondorio gisa, maila moderatuaren gehieneko puntuazioan (5 puntu), 25 urteko batez besteko adinerako (20-30 urteko adin-tartea hartuta aintzat, adin-tarte hori baita ugariena duindu nahi dugun urraketaren unean): 4.800,96 euro”.

Hala ere, perituen taldeak nahiz Batzordeak berak berriro planteatu dute nahigabe hori, modu kronikoan, peritu-balorazio zorrotzaren arabera puntuaziorik merezi ez duten edo oso puntuazio baxua eskuratu duten eta, beraz, barregarritzat jo genezakeen kalte-ordaina jasoko luketen kasuen ebazpenean.

Giza eskubideetan adituak diren batzordekideek abiapuntu gisa argudiatu dute, Nazio Batuen Torturaren aurkako Komitearen eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrinan oinarrituta, torturak ondorio iraunkorrak eragiten dituela eta biktima askorentzat denborak aurrera egiteak ez duela mina arintzen. Gainera, torturaren inpaktua erabilitako metodoen eta iraupenaren arabera da, baina baita biktimaren ezaugarri pertsonalen eta erresilientzia-ahalmenaren edo zaurgarritasunaren arabera ere.

Nolanahi ere, torturari edo bestelako tratu nahiz zigor anker, gizagabe edo umiliagarri buruzko NBEren errelatore bereziak, tortura ikertu eta prebenitzeko auzitegi- eta mediku-zientzien zereginari buruzko txostenean (2014ko irailaren 23koa da: A/69/387 dokumentua, 31. or.), adierazi zuen torturak ondorio fisikoak utzi ditzakeela edo ez. Zehazki, errelatoreak esan zuen torturak, batez ere psikologikoa denean (*Batzordean, gehienbat, bien nahasketa aztertzen dugu, hainbat proportzio eta intentsitate-tan*), ondorioak izaten dituela (hala nola, ezin fidatzea, gizartetik isolatzea, alienatzea, lotsa edo erruduntasuna sentitzea...) eta ondoriook kasu batzuetan ez direla agerikoak izaten; hau da, ondorioek ez diote bizi-ibilbidea eten, edo denbora batez bakarrik egin dute, baina biktimek beti dute, etengabe, kaltetuta daudelako sentimendua. Tortura psikologikoen biktimei, ondorio fisikorik ez edukitzeak zaildu egiten die haien sufri-mendua aitortzea.

Errelatore bereziaren ohar horiek askotan aurkitzen ditugu gure balorazioetan, biktimek sufrimendu emozional handia erakusten dutelako azterketan/elkarrizketan. Horrek esan nahi du minak haiekin jarraitzen duela, baina ez dituzte betetzen kuantifikazio baterako irizpideak, trauma osteko estresaren nahasmenduari buruzko peritu-irizpide diagnostikoen arabera.

Eta, hain zuzen ere, “gainerako sintomak batere adierazgarriak izan ez arren minak haiekin jarraitzen duela” egiaztatzeak sorrarazten die nahigabea batzordekideei eta perituei, pertsonari erreparazio egokia aplikatzen ari ez zaizkiola sentitzen dutelako (bat etorrira giza eskubideen nazioarteko babes-araubidearekin), perituek ezin baitute modu objektiboan erakutsi trauma osteko estresaren nahasmendua dagoenik.

Pertsonen aldeko ikuspegia aplikatzeko, giza eskubideak benetan bermatze aldera peritu-balorazioari egindako objektzioak bidezkoak direla uste dugulako eta legean aitortzen diren eskubideak hobeto eta gehiago babestuko direla (biktima gisa aitortutakoen mesedetan beti), kalte-ordainen gutxieneko oinarria trauma osteko estresaren nahasmenduaren maila moderatuaren 5 puntuetara igotzea proposatzen dugu (4.800,96 euro), Batzordeak biktimatzat jotzen dituen guztientzat. Hortik aurrera, sintoma adierazgarriagoak dauzkaten eta bizitzan ondoren gehiago utzi dituzten ondorio psiko(pato)logikoen kasuak 5 puntutik gora baloratuko dira, bizitzan modu iraunkorrean nahiz ez-iraunkorrean eragin gorabehera.

Aurrekoak, baina, ez digu galarazten balioestea biktima batzuek ez dutela zertan kalte-ordainik merezi, haien ezaugarri pertsonalak, familiarrak, politikoak eta abar direla-eta askoz ere min edo sufrimendu mugatuagoa adierazten dutelako, etorkizunera begirako ondorerik gabea.

III. Gomendioak.

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak, diziplina juridiko propio gisa, interpretazio- eta aplikazio-metodo juridiko propioa dauka. Metodo horrek giza eskubideen zentzuari eta muinari heltzen die; hots, “*pro homine ikuspegia*” dauka.

Ikuspegi horren helburua da pertsonen giza eskubideak oso-osorik eta benetan bermatzeko emaitzarik onena lortzea, eta, beraz, ikuspegi horrexek gidatu eta gidatzen du, une oro, Batzorde honen lana. Halaber, eskubideak oso-osorik bermatzen lagunduko duten gomendio hauek idaztean ere, oinarri horri heldu diogu.

Hala, urteko lehenengo txostenean jaso genuen bezala, progresibitate-printzipioa hartuta pertsonen aldeko ikuspegiaren funtsezko elementutzat, Batzorde honek adierazi nahi du beharrezkoa eta egokia dela babestutako eskubideen kopurua eta edukia areagotzea eta eskubideon indarraldia bermatzeko prozeduren eraginkortasuna eta baliagarritasuna handitzea.

1. Balorazio batzordeak 2022ko ekainaren 23ko txostenean emandako gomendioen betetze-maila

2022ko ekaineko txostenean, 12/2016 Legearen edukiari jarraikiz, Batzordeak, III. epigrafean, zenbait gomendio eman zituen (zehazki, sei), eta orain aztertuko dugu zenbateraino bete diren.

1) **Aitortzarako ekitaldi instituzionala, urtekoa** Balorazio Batzordeak begi onez ikusi du Eusko Jaurlaritzaren proposamena, motibazio politikoko arrazoiengatik giza eskubideak urratu dizkieten biktimak aitortzeko ekitaldi bat antolatzekoa 2023an.

2) Era berean, zati batean bete dira 12/2016 Legearen helburuak eta Balorazio Batzordearen lana ezagutzera emateko egin genituen gomendioak. Horri begira, bada, EHUren udako ikastaro bat egin da Donostiako Miramar jauregian, ekainaren 26an eta 27an, “*Egia eta aitortza torturaren eta tratu gizagabe eta umiliagarrien biktimentzat*” izenekoa, non Batzordeko presidenteak eta beste kide batzuek hartu baitute parte, hizlari gisa.

Dena dela, 2021eko eta 2022ko txostenak ez zaizkie banatu legearen eskatzaileei edo bestelako hartzaile batzuei. Funtsezkoa da aintzat hartzea, berehala azpimarratuko dugunez, gure lana zabaltzen ez bada nabarmen murrizten dela egia-mekanismo honen emaitzak jendarteratzeko duen ahalmena.

3) Bestetik, zati batean bete da Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin batera legea garatzeko baliabideen hornikuntzari buruz egin genuen gomendia, IVAC/KREIko pertsonekin (Tortura Ikertzeko Proiektuan parte hartu zuten bi pertsonarekin) indartu baitzen taldea 2022ko urtarrilean, 2022ko txostenean adierazi moduan. Halaber, poztarra da 2022ko irailean pertsona berri bat sartu izana Balorazio Batzordearen Idazkaritza Teknikora; Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Berdintasun eta Lankidetzaren Zuzendaritzak kontratatu zuen.

2. 2023ko txostenerako gomendioak

Batzordeak honako gomendio hauek ematen ditu:

2.1. Biktimei aitortza egiteko ekitaldi instituzionalak.

Ezin dezakegu ahaztu erreparazio-neurriek eta neurrien ondorioek balio sinbolikoa dutela memoria kolektiboaren eraikuntzan.

Batzordearen 2021eko eta 2022ko txostenetan esan genuen moduan, giza eskubideak urratu dizkieten biktimek gehien partekatzen duten eskaera da jasandako kalteak berran aitortzea (batez ere, kalte moralak); hots, erakundeek haien sufrimendua eta egia aitortzea, isiltasunetik irten eta ikusgai egiteko premiak kontuan hartuz. Hori dela-eta, Batzordeak, elkarrizketatutako biktimen sentimenduak bildu ondoren, berriro ere gomendatzen die Euskadiko botere publikoei urtean aitortzarako ekitaldi publiko bat egin dezatela gutxienez, goreneko mailako aitortza bat; biktimek parte hartu behar dute egiten diren memoria-ekitaldietan. Ekitaldian, argitara atera behar da biktimen egia, baita jasan zituzten giza eskubideen urraketa larriak ere. Horri begira, biktimek eta beren senideek oso ondo baloratu zituzten Eusko Jaurlaritzak 2021eko ekainaren 26an Bilboko Euskalduna jauregian egindako aitortza-ekitaldi instituzionalak.

2022ko txostenean adierazi moduan, Batzordeak egiaztatu egin du biktima eta senide batzuentzat interesgarria izan daitekeela aitortza hori modu banakatu eta pertsonalagoan jasotzea, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzaren Sailburuordearen eta Balorazio Batzordeko kideen ebazpenen bidez. Halere, horrek ez luke galarazi beharko gero oihartzun handiagoko ekitaldi publikoago batean parte hartzea.

2.2. Bultzada parlamentarioa.

Batzordeak erabaki bat sartzan du irizpen guztietan, Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari eskatzeko, biktima horien memoriarekiko duen betebeharrak publikoan aintzat hartuta, aitortza-ekitaldi guztietan sar ditzatela biktimak. Gainera, Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari gomendatzen die eskaera bera egin diezaitela Estatuko erakundeei, kontuan hartuta haren segurtasun-kidegoek eta -indarrek erantzukizuna izan dutela aztertu diren gertaeretan.

Ondorioz, erabaki horren bidez, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu eginkizun proaktiboa izan dezala, Batzorde honen lanaren bidez edo egokitzen dituen mekanismoen bidez, biktima horien aitortza- eta erreparazio-prozesuan, eta, bestalde, giza eskubideen urraketa larriak (adibidez, gure lanean egiaztatzen ditugunak bezalakoak) ez errepikatzea bermatzen lagundu dezala, Batzordeak 2021eko eta 2022ko txostenetan adierazi moduan.

2.3. Lege-erreforma.

Batzordeak hiru urte luze daramatza lanean, eta ikusten jarraitzen du 12/2016 Legea berrikustea eta alderdi zehatz batzuk aldatzea komeni dela. Zentzu horretan, proposamen hau errepikatzen dugu, 2021eko eta 2022ko txostenetan adierazitakoaren ildoan.

“*Efektu baliagarriaren printzipioa*” betetzeko, pertsonen aldeko ikuspegiaren elementua izaki hori, kasu zehatz bat arau erregulatuaren arabera aztertzean egiten den interpretazioak efektu egokiak izan behar ditu giza eskubideen urraketen biktima gisa aitortutako pertsonentzat, modu praktikoa eta eraginkorrean babestu daitezen, helburua aintzat hartuta.

Halere, jarraian zehaztuko dugun bezala, Legearen gaur egungo testuak eragotzi egiten du biktimatzat hartutako pertsona batzuek arauaren efektu egokiak jasotzea; hor-taz, Batzorde honek honako aldaketa hauek proposatzen ditu (premiaren arabera, bi bloketan bana daitezke):

2.3.1. Premiazko aldaketa bat: kalte-ordainak

2022ko txostenak jasotzen zuenez, 12/2016 Legearen aplikazioan zenbait hutsune agertzen ari dira; beraz, lege-aldaketa bat behar da. Hutsune horietako batek kalte-ordainetarako aurreikusita dagoen sistemarekin dauka zerikusia: Batzorde honen ustez, premiaz aldatu behar da sistema hori, egunerokotasunean hartu behar ditugun erabakiei eragiten dielako. Lehenik eta behin, sistema horrek, oinarrian, ez du bat egiten biktimeen errealitatearekin, ezta nozitu zituzten urraketan etiologiarekin ere. Eta, bigarrenik, batez ere 9.2.f) artikulua (Baliazintasunik gabeko lesio iraunkorreatiko konpentsazioak) eta 9.3 artikulua (Tratu txar larriak zein iraunkorrak ez diren lesioak jasan dituzten pertsonak ez dute konpentsazio ekonomikorik jasoko) bistako bidegabekeriak sorrarazten dituzte, kalte-ordainik ez jasotzea edo kalte-ordain benetan barregarria -izen hori ez hartzeko modukoa- jasotzea eragiten baitute. Egiaztatzen ari gara askotariko sufrimendu fisiko eta psikikoak daudela, epe labur, ertain eta luzearako ondorioak ere askotarikoak izan daitezkeela eta ondoriook bizi-proiektuan eta -kalitatean dituzten inpaktuak askotarikoak direla: kasuistika hain da luzea, konplexua eta larria, ezen, gertakarietatik igarotako denbora luzea gaineratuta, lege-esparruan distortsio nabariak sortzen baitira. Premiazkoa eta beharrezkoa da 9. artikulua aldatzea. Zehazki, indargabetu egin behar da tratu txarren eta torturen kasuetan kalte-ordainik ez jasotzeko aukera egotea, eta, lesioen kasuetan, kalte-ordainak emateko aukerak aberastu eta malgutu behar dira, lesiook iraunkorrak izan zein ez.

Perituen taldean eta Balorazio Batzordearen osoko bilkuran, nolabaiteko nahigabea dago, Batzordean biktima gisa aitortutakoentzako kalte-ordainen balioespe-na dela-eta.

Izan ere, torturari edo bestelako tratu nahiz zigor anker, gizagabe edo umilia-garriari buruzko NBERen errelatore bereziaren iruzkinetatik abiatuta (auzitegi-eta mediku-zientziek tortura ikertu eta prebenitzeko duten zereginari buruzko txostena, 2014ko irailaren 23koa: A/69/387 dokumentua, 31. par.) eta Nazio Ba-tuen Torturaren aurkako Komitearen eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia-ren doktrinan oinarrituta, gure balorazioetan, askotan, azterketan/elkarrizketan sufrimendu emozional handia erakusten duten biktimekin egiten dugu topo. Horrek esan nahi du minak haiekin jarraitzen duela, baina, min hori kuantifi-katzeko orduan, ez dituzte betetzen ez trauma osteko estresaren nahasmenduari buruzko peritu-irizpide diagnostikoak, ez uztailaren 28ko 12/2016 Legearen iri-zpideak (12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa).

Pertsonen aldeko ikuspegia aplikatzeko aldarrikatzen dugu, giza eskubideak be-netan bermatzeko ikuspuntutik begiratuta bidezkoagoa dela eta Legean aitortzen diren eskubideak hobeto eta gehiago babestuko direla uste dugulako (biktima gisa aitortutakoen mesedetan beti), kalte-ordainen gutxieneko oinarria igotzeko aldaketak egin daitezela, Legebiltzarrari urtero egiten diogun txosten honetan peritu-lanari buruzko atalean zabal azaldu moduan.

2.3.2. Epe ertain eta luzerako aldaketak

Kalte-ordainen arloan egin litekeen premiazko erreforma balia liteke, hobetu daitezkeen edo doikuntza teknikoak behar dituzten beste alderdi batzuk ere aldatzeko. Zorrotzegiak izan gabe, komeni da honako aldaketa hauek aipatzea: Legearen denbora-eremua zabaltzea; osoko bilkuraren eraketa eta funtzionamendua doitzea, kide anitzeko organoaren eraketa arinagoa eta malguagoa izan dadin, lan egiteko ahalmena kualitatiboki areagotze aldera; eduki batzuk memoria historiko eta demokratikoari buruzko araudi autonomiko eta estatalarekin koordinatzea; biktimen elkarteek eta antolakundeek 12/2016 Legearen babespean eskaerak egiteko duten legitimazio aktiboari bide ematea, eta, azkenik, etorkizuneari, jardun-eremua bizitzari edo osotasunari buruzko beste urraketa batzuetara hedatzea, bat etorrita Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen progresibitate-printzipioarekin.

Halaber, adierazi beharra dugu, Batzordeak halaxe egiaztatu baitu, gure lanak konfiantza sorrarazi duela dena delakoagatik 12/2016 Legearen prozesura epe barruan jo ez zuten edo jo ezin izan zuten biktima askorengan. Txostenaren sarrean jasotzen denez, ohiko aldiari jasotako 1.027 eskaeretatik 64 epez kanpo sartu dira. Batzordearen lana gidatzen duen biktimen aldeko ikuspegitik abiatuta, Eusko Legebiltzarrari proposatzen diogu beste epe bat zabaldu dezala eskaerak aurkezteko.

Alderdi horiek, dudarik gabe, abiapuntu bat ezar lezakete, Legebiltzarra lege-erreforma bat prestatzen hasi ahal izan dadin.

2.4 biktimak babesteko betebeharrak publikoak.

Batzordeak biktimak zaintzeko gomendioa errepikatzen du, 2021eko eta 2022ko txostenetan planteatu zen moduan: *“Erakunde publikoari erregutzen diegu (berezi, alderdi eta ordezkari politikoei) kontuan har dezatela gai honi buruzko debate demokratikoan zuhurtasuna eta biktimen aldeko begirada gailendu behar direla, Batzordera jo duten pertsonak birbiktimizatzea saihesteko; izan ere, urte gehiegi daramatzate ahanztura, aitortzarik eza eta, askotan, estigmatizazio bidegabe bat edo badirela ere ezezteko ukapena arrastatzen”*.

Horri begira, Batzordeak erakunde publikoari gogorarazi nahi die biktimak oroitzeko egiten dituzten jarduketek, forma edozein dela ere (oroitzapen-plakak eta antzekoak), nahitaez duindu behar dituztela biktimak.

2.5. Batzordearen lanaren hedapena.

2.5.1. “Ez errepikatzeko bermeen” esanahiak berak neurri espezifikoak hartzea dakar (neurri legalak, judizialak, instituzionalak eta giza eskubideak sustatu eta giza eskubideetan heztekoak), neurriok lagundu egin behar baitute etorkizuneari giza eskubideen urraketak saihesten, kultura demokratikoa indartze aldera.

Xede horiexekin, argitaratu egin beharko lirateke (formatu digitalean eta papelean, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) Batzordeak Legebiltzarrari urtero bidali behar dizkion txostenak, Gogora institutuan gordetzeaz gainera, aurkeztu ondoren, sistematikoki eta masiboki bidal dakizkien Euskal Autonomia Erkidegoko arku instituzional osoari, Estatu osoko erakundeei eta lanok baliagarri gerta ahal zaizkien agente politiko, sozial, sindikal, hezitzaile edo bestelakoari. Biktima horien errealitateak ezkutuan jarraitzen du, azaleratzeko zailtasun handiekin. Uste dugu Legebiltzarrak ahalik eta gehien zabaldu behar dituela txostenak, aha-

lik eta pertsona eta antolakunde gehienetara irits daitezzen, idatzizko formatuan, ikus-entzunezkoen formatuan eta abarretan. Halaber, eskatzaile guztiei bidali behar zaie txostena, eta ez espedientea ebatzita dutenei bakarrik. Hedapen-lan hori eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da Legebiltzarrak laguntzea.

Orain arte iradoki moduan igorri ez direnez, lehenengo hiru txostenak elkarrekin banatzea gomendatzen dugu urte honetarako.

2.5.2. 2024ko ekaineko txostena aurkeztu aurretik nazioarteko biltzar bat egitea proposatzen dugu, bai lege-mekanismo hau ezagutzera eman dadin, bai biktimen aitortzak duen egoeraren berri eman dadin, Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen Batzordeak eta Eusko Jaurlaritzak zuzenean sustatuta eta Balorazio Batzordeari eta biktimen antolakundeei parte hartzeko aukera emanda. Biltzar horrek asko lagunduko luke hizpide dugun errealitatea Espainiar Estatu osoan jendarteratzen, baita biktimen errealitatea ikusgai egiten ere, bat etorrita Europako eta nazioarteko egitasmo eta jarduera onekin.

Biltzarrak, gainera, 12/2016 Legea aldatzeko eztabaida teknikoak hasteko balio lezake, dagokion gomendioan iradokitakoaren ildoan.

2.6. Baliabideen hornidura.

2022ko ekainean aurkeztu genuen txostenean jada adierazi genuen Balorazio Batzordearen lege-diseinua eta espedienteak bideratu eta ebatzeko lege-aurreikuspenak (nahitaezko peritu-txostena barne hartuta) oso zurrunik eta disfuntzionalak direla. Zentzu horretan, premiazkoa da legea iradoki dugun bezala aldatzea.

Egiazki, lege-esparruak, gaur egun ditugun baliabideekin batera, galarazi egiten du urtero eskaera-kopuru nahikoa bideratu ahal izatea; ondorioz, atzerapen luzeak sortzen dira, eta horrek frustrazioa, inpotentzia eta sufrimendu erantsia eragiten dizkie eskaerak aurkeztu dituzten pertsoneri eta haien senideei.

Balorazio Batzordea, lanean hiru urte egin ondoren, nahiz eta errefortzuak jaso, batzordekideek eginahalak egin eta lana ahalik eta azkarren egitea lehenetsi, ez da gai espediente-kopuru nahikoa izapidetzeko, egindako eskaerak garaiz eta behar bezala ebatzeko moduan.

Aitortza hori urteak eta urteak atzeratu ahal izatea ez da egoera jasangarria, ez legearen ikuspuntutik begiratuta, ez ikuspegi etiko edo politiko batetik begiratuta. Gai horrek galzorian jar ditzake Batzordeak eta lege-mekanismo honek biktimen eta haien eskubideen inguruan eskaini beharko lituzketen sinesgarritasuna eta erreparazio-eginkizuna.

Beraz, Eusko Jaurlaritzak Balorazio Batzordearen oraingo baliabideak indartzea komeni da; zehazki, honako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

- Auzitegi-perituen taldeari laguntza egokia eman behar zaio, eta laguntza horrek gai izan behar du peritu-txostenak prestatzeko eta, bereziki, kasu konplexuenetan eta dokumentazio-bolumen handiak daudenetan laguntzeko.
- Balorazio Batzordeari laguntza egokia eman behar zaio, kasu judizializatuak aztertzen laguntzeko eta, bereziki, kasu konplexuenetan eta dokumentazio-bolumen handiak daudenetan laguntzeko.
- Legean bertan aipatzen den Idazkaritza Teknikoan (12/2016 Legea, 17.1.e) art.) funtzionario gehiago behar dira, lanaldi osoa Batzordeari eskainiko diotenak,

bai Sailburuordetzako langileen bidez, giza eskubideen arloan eskudunak bada, bai, bestela, zerbitzu-eginkizunetan dauden langileen bidez edo langile baliokideen bidez, generoaren eta giza eskubideen arloan prestakuntza espezifiko badute.

- Lotura-mekanismo arin bat diseinatu beharko litzateke, Justizia Administrazioarekin lankidetzan aritzea eta informazioa trukatea errazteko. Horretarako, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sailak solas eraginkor eta espezifiko bat identifikatu eta ezartzea iradokitzen dugu, Balorazio Batzorde honentzat egokia izango dena eta informazio judizialaren eskaerak egiten eta, hala badagokio, eskuratzen lagunduko duena.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 28a

